

...eta Kitto!

2017-V-5

1.014 zkia.



ESPAINIAKO KOPA urrezko gimnastentzat

97€ 2 mō betaurreko
graduatu
erreflexuen aurkako leiarrekin
+
eguzkitako
graduatuak

Gure betaurreko
guztiak bilduma
berrietakoak dira

www.multiplicasgipuzkoa.com

ARRASATE • BERGARA • BEASAIN • DONOSTIA • ERRENERIA • IRUN
LASARTE • ORDIZIA • TOLOSA

Kontsulta itzazu zure optikan kanpainaren ezaugarriak. Eringo da beste eskaintza batzuetan erabili.



Bidebarrieta, 2
Tel.: 943 20 05 22
EIBAR

MULTIÓPTICAS
lehena zerbitzu optikoetan



Euskara Elkartea

ARGITARATZAILEA:
...eta kitto! Euskara Elkartea.

HELBIDEA:
Urkizu, 11. 20600 Eibar

TELEFONOAK:
943 20 67 76 / 943 20 09 18.

FAXA: 943 20 28 72.

ASTEKARIAREN E-MAILAK:
erredakzioa@etakitto.eus
komunikabideak@etakitto.eus
publizitatea@etakitto.eus

ELKARTEAREN E-MAILAK:
elkartea@etakitto.eus /
normalizazioa@etakitto.eus

ERREDAKZIO-KONTSEILUA:
Ana Aizpuru, Itziar Albizu,
Ekhi Belar, Jose Luis Gorostegi,
Silbia Hernandez eta Uxue Igarza.

ADMINISTRAZIOA:
Marisol Uriarte.

KOORDINATZAILEA:
Ana Aizpuru.

ERREDAKZIO-BURUA:
Silbia Hernandez.

DISEINUA ETA MAKETAZIOA:
J.L. Gorostegi.

ARGAZKI ARLOA:
Maialen Belaustegi.

HIZKUNTZA ARDURA:
Juan Andres Argoitia
eta Maider Aranberri.

PUBLIZITATEA:
Itziar Albizu eta Belen Ulazia.

TELEFONOA: 943 20 67 76.

AZALEKO IRUDIA:
Ipurua Gimnasia Erritmikoa

BANAKETA-ARDURADUNA:
Ainhoa Luz.

TIRADA: 8.100 ale.

INPRIMATEGIA:
GERTU koop. (Oñati).

COPYRIGHT-A: ...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA: SS/430/92.
ISSN: 1132 - 1679

(*...eta kitto!* ez du bere gain hartzen
aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien
erantzunkizunik)



**Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak
eta Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza
Politika Sailak diruz lagundutako aldizkaria**



**EIBARKO
UDALA**



**GIPUZKOAKO
FORU ALDUNDIA**



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

**KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA)**

eskutitzak

– GURE BIZIAK JOKOAN DAUDE –

Matxismoak hiltzen jarraitzen gaitu. Horregatik gaude gaur hemen eta ez gaituzte isilduko. Terrorismo matxista egitura patriarkalaren eta honen mekanismoen ondorioetako bat da. Gizonek emakumeekiko dituzten pribilegioak mantentzen jarraitzeko, sistema honek menpeko nahi gaitu, behartsu, pasibo, kontrolpean, geure artean haserre eta zioritsu izateko indarrak gabe.

Askotariko eraso matxisten aurka egiten dugu borroka egunero: bortxaketak, esplotazioa, erailketak, dependentzia ekonomikoa, arrazakeria, eraso lesbobofoak, gure gorputzen kontrola edota maitasun erromantikoa.

Mugimendu feministek indarkeria hauen kontra egunero egiten dute borroka ez gaurko bakarrik. Zu-

tik eta tinko jarraituko dugu; pankarta baten atzean, sare sozialetan, eraso sexisten aurkako protokoloak lantzen, jabetze eskoletan geure buruak trebatzen, ekintzak antolatzen, autodefentsa feminista ikastaroetan parte-hartzen, bizipenak partekatzen, elkar laguntzen, idazten, margotzen, kirol arloko espazioa hartzen. Bateratuta. Elkartuta.

Gure biziak jokoan daude eta beste alde batera begiratzen dugun bakoitzean, terrorismo matxistaren konplize gara. Guk argi daukagu: sistema patriarkalaren aurka erotik eta zuzenean borroka egiteko feminismoa eta autodefentsa feminista dira bide bakarrak. Guk borrokatzen ez badugu, inork ez du guregatik egingo. **Gora borroka feminista!**

Nalua Eibarko Feministak

– M-7, ERABAKIA GURE ESKU –

Armeria Eskolako hitzaldian Ibarretxe Lehendakariak esan zuen lez, "olatuek ez dute etenik; bata bestearen atzetik datoz" eta maiatzaren 7an helduko da horietako bat gurea. Erabakitzeo eskubideak herritar guztiak batuko gaituen zeharkako kontzeptu izatea du helburu; eskubide bera ez aitortzeak Euskal Herriaren berraren existentzia ukatzea dakarrelako, nahiz eta barrubarruan gutxi ukatuko duten Euskadi subjektu denik.

Idatzi honen bidez, Ernaik aurreko astean egindako deiarekin bat egin nahi dugu gazteria Gure Esku Da-

goren galdeketa parte-hartzera animatzeko. Domeka honetan eibartarrok gure esku daukagu aukera aprobetxatzea, jakina baita eskubideak erabiliz irabazten direla. Abertzale modura, gure hautua euskal errepublika baten aldekoa izango da, baina iritzi honekin bat egiten ez duzenok ere beharrezkoak zarete ariketa demokratiko honetan. Bozkatzen duguna bozkatzen dugula, **erabakitzeo ahalmena** izango delako ziur guztiok irabaziko duguna.

Eibarko EGI

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

LIXIBARRI. - Erropa garbitzeko harria. "Lehenago etxietan egoten zan lixibarrixa, sukalde baztarran".

LIXIBA EGIN. - Erropak garbitu, jabanadura egin. Gaztelazko "hacer la colada". Normalean, errekan edo askan egiten zen. "Lixibia hillero egitten zan gitxienez".

LIXIBA JO. - Lixiba egin, erropak garbitu. Errekan edo askan, erropak lauskitu eta harrian jo egiten zituzten. "Lixibia jo ondoren, zapixak euzkittara atara, eta gero izarak tolostu".

astean esanak

"Makinak ez dauka zertan perfektua izan, gu baino hobea izatearekin nahikoa du. Google Maps-ekin ez duzu hiri bat ezagutzeko beharrik, nahikoa da bere instrukzioak jarraitzea. Begira osasunari: Fitbit motako pultsera batek 24 ordu monitorizatzen bazaitu, sendagileak baino lehenago jakingo duzu gaixorik zauden. Googlek, Amazonek edo Facebook-ek hautatuko dizute zer karrera egin edo zeinek ezkondu. Erdi Aroan apaizek edo gurasoek egiten zutena orain beste horiek egingo dute zuregatik"

(YUVAL NOAH HARARI, HISTORIAGILEA)

"Egipton lehen britainiarrek kolonizatu gintuzten, orain estatubatuarrek eta europarrek. Eta emakumeon kasuan, atzera egin dugu, asko. Orain mende erdi, Medikuntza Fakultatean inork ez zuen belorik eramaten, orain %90k burua estaltzen du. Beloak buruaren mozketara adierazten du: emakumeok burugabe huts bihurtzen gaitu. Kristianismoan ere, zenbat eta elizkoia izan orduan eta gehiago estaltzen ziren, mojak esaterako. Islamak hortik hartu zuen. Horregatik, ezin da feminista izan eta beloa onartu. Hor ez dago hautatzeko askatasunik; horrelakoak onartzea esklabotasunaren alde egitea da"

(NAVAL EL SAADAWI, IDAZLEA)

"Zer du txarrik goitik behera niqab edo burka batekin estalita joateak? Hor emakume bakoitzaren asmoa eta egin dezakeen irakurketa daude. Ni, musulmana izanda ere, ez naiz horrela janzen; baina islamikoa ez dudalako kontsideratzen. Bere gorputzaren inguruan emakume bakoitzak hartzen dituen edozein erabaki errespetatzen dut, atzetik gehienetan sistema patriarkal kapitalistari erantzuten diotelako eta gure gorputzaren erabilera sexuatuari. Zergatik sartu behar gara besteen bizitzetan? Munduan, Iranen eta Turkian kenduta, inon ez da behartzen jendea zelan joan behar den jantzita"

(LAURE RODRIGUEZ, IDAZLEA)



ENRIKE SOSOLA

Dry Stone Bulding

Gerrako bonbardaketa eta suteekin batera eibartarron urbanismo-ereduak aurretik eraman ditu eraikin historiko ugari. Gure arima, ALFA zaharra bera ere eraitsi egin genuen. Bistakoa da aurrerabideak gure ondareari ez diola mesederik egin. Halere, badugu oraindik Eibarko mendietan ezkutuko altxor ederrik: **Harri hutsean** (Dry Stone) baserritar-harginek eraikitako muga, bide, zubiak.. Den-denak kare edo portlanik gabeko herri-arkitekturaren adibide bikainak eta Britania Handian, Irlandan, Frantzia edo Katalunian oso estimatuak direnak. Izan ere, gure orografia-geologia bereziak dira; Eibar-zuloaren topikoa alboratuta "lagun" izan ditugula ezin uka. Adimena sustatzeaz gain, baliabide naturalak ere eskaini dizkigute. Besteak beste, eraikuntzarako oso egokia den Flicsh-aren harlauza biguna. Baserritar txiroentzat bizirauteko baliabide debaldeko eta ezinbestekoa. Esango nuke nere ezjakintasunean, gutxi izango direla Euskal Herrian gurean bezalako adibide bikainak (Abontza erreko arroan adibidez). Bada ordua gure historiari erreparatu eta ondareari kasu piska bat egiteko. Nortasunari eusteko jakina, baina batez ere irakaspenak jasotzeko. Izan ere, eibartarrok beti egitasmo berriak buruan, gaztetxoan "harrobiaren" kokapena aukeratzeko garaian, ea "Another football is possible" lelo hori marketing hutsa baino zerbait gehiago suertatzen den. Arbasoekin eta ondarearekin zorretan gaude.

Arraten esango detse agur gaur eguerdixan Nagusixen Hamabostaldixari

Gaur agurtuko dabe Nagusixen Hamabostaldixa Arraten, izena emon daben jubilauek Kantabria jatetxian egingo daben bazkarixarekin. Holan agurtuko dabe apirilko azken egunotan hasitako programia. Bixen bittartian elikaduraren inguruko hitzaldixak, txapelketak, exkursiñuak eta beste jarduera batzuk egin dittue. Aste honetan, martitze-

nian, argazkixan ikusten dozuen taldiak ederto pasau eban arratsaldia San Andres egoitzan kantuan. Nagusixen Hamabostaldixak 24. ediziñua bete dau aurtan eta aukeratutako goiburua "Pertsona nagusixak bizitzaz gozatzen eta beti martxan" primeran azaltzen dau gure herriko jubilaueen erritmua zelakua dan.



San Andres egoitzan kantuan jardun zeben Kaleetan Kantuz-ekuak.

asteko
26
datua

eibartarrak emon dabe izena prestatutako bazkarixak eta afarixak jasotzeko oin dala hillabete bat Udaleko Gizarte Zerbitzuko sailak martxan ipiñittako zerbitzuan. Goierna Zerbitzuak enpresa arduratzen da horretaz eta astelehenero entregatzen dau aste osorako eskatutakua. 65 urtetik gorakuendako zan hori zerbitzuori hamendik aurrera eibartar guztieri eskinduko jakue.

Bertso-bazkarixa Legarre Gaiñ-en maiatzaren 13rako

Arrajolape Kultur Elkarteak bertso bazkarixa antolatu dau maiatzaren 13rako. Manu Goiogana eta Nerea Ibarzabal bertsolarixak arituko dira eta gai jartzaillia Desi Magro izango da. Legarre Gain alkartian izango dan bazkarirako menua ensaladia, paella eta pastelak osatzen dabe (nagusixeri kafia eta kopia be emongo detse). Txartelak 20 euro balixo dau (umiak 10 euro) eta Legarre-gaiñeko Bolintxo dendan eta Legarreko fruterixan erosi leikez.



Aurreko ediziñuetan be ondo baiño hobeto pasau izan dabe bazkarixan.

Galiziako Etxekuen Dias das Letras-eko jaixak beteko dabe asteburua Urkizun

As Burgas Galiziako Etxekuen eskutik, XXXIV. Dia Das Letras Galegas ospatzeko aukeria izango da asteburu osuan Urkizun. Preparau daben programia gaur arratsaldian hasiko da, 19:00etan Jai Bartzordiaren tabernia zabaltziakin batera. Jai giruan murgiltzen juateko Os Galaicos taldekuak auzuan kalejiran ibilliko dira eta, horrekin batera, Smily Animacion-en eskutik umiendako ikuskizuna, taillarrak, jo-



lasak eta beste hainbat antolatu dittue. Gaberako, barriz, Suavecito orkestarekin dantzan jarduteko aukeria izango da. Bixarko jarduerak goizetik hasiko dira, jolas diferentien txapelketekin. Eguardixan, barriz, herri-kirol erakustaldixa eskinduko dabe aizkolari eta harrijasotzailliak. Arratsaldian, bestiak beste, Os Galaicos taldekuak eskinduko dittuen Galiziako dantza eta musikarekin batera Aire Andaluz talde-

dekuen sevillanak ikusteko tartia eukiko dau jendiak eta arratsaldeko zein gabeko berbenia girotzen Emperadores orkestakua jardungo dabe. Eta domekan Galiziako folkloriak Euskal Herrikuarekin bat egingo dau, 12:30xetatik aurrera Urkizun egingo daben erakustaldixan. Jaixak antolatzen jardun dabenak, lagun eta famelixakuekin batera, alkarrekin bazkalduko dabe eta 18:30xetan aurtengo jaixetako azken dantzaldixa hasiko da, Los Trovadores taldekuen eskutik.



Os Galaicos-eak kalejiran ibilliko dira.

autuan

PRESUEN ALDEKO MANIFESTAZIÛNA

Larriki gaixorik daguazen presuen egoeria salatzeke bixar Gasteizen egingo dan manifestaziõna juateko deixa egin nahi dabe Eibarko Sareko ordezkariak. Iparralde gizarte-etxian 17:30xetan hasiko den manifestaziõna juateko autobusa antolatu dabe eta 16:00etan urtengo da, Egogaiñetik. Izena emoteko Depor, Beleko eta Buenos Aires tabernetara jua bihar da.

FRANKISMUAREN BIKTIMERI DEIXA

Alkatetzak prozedura hasiko dau Argentinako 4591/10 auzixan (Argentinako Kereillan) akusaziõ gisa aurkezteke eta, hori dala eta, frankismuaren biktimeri edo famelixakueri Alkatetzara juateko dei egin nahi detse, nahi badabe euren testigantzak edo salaketak kontatzeko. Azken eguna maiatzaren 31a izango da. Informaziõ gehixago jasotzeko 943 7084 01 telefonora deittu.

www.kolorlan.com

667 54 89 16



KOLORLAN
PINTURA LANAK S.L



• **tartak**
• **enkarguak**
etxera

Bidebarrieta, 28
☎ 943 20 79 73

Abbie White

matrikula zabalik
2017 - 2018
2 urtefik aurrerako
umeendako klaseak
irakasle ingelesek in


English School
Bista Eder 7 behea
abbiewhiteenglish@gmail.com
informa zaitetz

BUS STOP

605693147

kale izena pertsonaiaren izana

PLAZIDO ZULOAGA Madrilen jaio zen 1834. urtean. Eusebio Zuloaga bere aitaren urratsei jarraituz, damaskinatuari eskaini zion bere bizitza. Plazidok ere Europan ikasi zuen gaztaroan. Damaskinatuaren eraberritzailatzat har dezakegu. Teknika berriein lan egiterakoan, arte horren perfekzioa hurbildu zen. Plazidok, armagintzan ez ezik, beste arlo batzuetan ere sartu zuen damaskinatua eta bere lanak oso ezagunak izan ziren. Bere obra ospetsuenetarikoa Prim Generalaren hilobia eta Loiolako aldare nagusiaren damaskinatuak dira. Eibarko lantegian dozenaka langile izan zituen, eta teknikaren oinarriak ikasi zituztenean euren tailer txikiak zabaltzen hasi ziren. Horrela, damaskinatua beste irtenbide ekonomiko bat bihurtu zen eibartarrentzat. Plazido Zuloaga 1910. urtean hil zen.



egilea:
IRATI LASA

Dibujo Eskolarekin elkarlanean

**Asteburu honetan hasiko da II. Gin Tonic Lehiaketia**

Euskeraz Primeran! kanpaiñiaren barruan, ...eta kitto! Euskara Elkarateak antolatu daben II. Gin Tonic Lehiaketia asteburu honetan abiatuko da. Maiatzeko lehen bi asteburuetan, oinguan eta hurrenguan egongo da lehiaketara presentau dittuen Gin Tonic-ak probatzeko aukeria, izena emon daben 19 tabernetan eta bezeruak botua emoteko aukeria izango dabe, horretarako ipiñiko diran buzoietan. Botua emoten dabenen artian asteburu bateko egonaldixa zozketatuko dabe antolatzailliak, beraz animatu!

Alcobendasen gertatutako ama-semiaren hilketak gaitzesteko mobilizaziñuak

Martitzenian Alcobendasen semiarekin batera ustez bikotiak hil eban andria eibartarra zala eta, eguazten goizerako bozeramaillien batzordia deittu eban udalak eta eguardixan alkatiak komunikabidiendako agerraldixa egin eban, Eibarko Udalak, Bozeramaillien Batzordiarene bittartez, aho batez hartutako erabagixaren barri emoteko: "Lehenik eta behin, Rakel Lopez Airas eta bere semiaren hilketia

zihero gaitzetsi nahi dogu. Horrekin batera bi dolu-egun izendatuko dittugu eta udaletxeko banderak makilla erdixan egongo dira. Erabateko alkartasuna azaldu nahi detsagu famelixakueri. Udala guztiz prest dago oin euki leikiazen premiñak asetzen laguntzeko, eta, nahi izanez gero, auzibidian akusaziño partikular gisa azaltzeko. Herritar guztiak animatu nahi dittugu Eibarko alkatiak deittutako mobilizaziñue-



Alkatiak komunikabidiendako agerraldixa egin eban haraiñegun.

tan parte hartzera". Atzo illuntzian alkarrataratzia egin zan udaletxe parian eta hildakuen

aldeko hilleta elizkizunak, barri, gaur izango dira San Andres elizan.

Jendiak edarto hartu eban "Eibar 1937: 80 urte" ikuskizuna

Oso harrera ona euki eban aurreko astian, barixakuan Coliseo antzokixan estrenau eban "Eibar 1937: 80 urte" ikuskizuna. Eta zapatu gabian Untzagan atzera be eskindu eban emalndixak jendetza batu eban. Bigarren emalndixa bideo batian jaso dabe eta udalak interneten ikusgai ipiñi dau, nahi daben jende guztiak ikusteko aukeria euki deixan.



Domekan botua emotera juateko deiza egin dau Gure Esku Dago-k

Gure Esku Dago dinamikaren ekimenez domekan 16 urtetik gorako 47.152 Debabarreneko herritarrei emongo jakue botuaren bittartez berba egitteko aukeria. Eibarren egingo dan galderia hauxe da: "Euskal errepublika bateko herritarra izan nahi dozu?". Eta galderiari erantzuteko aukerak, barriz, bi: bai ala ez. Geure herrixan sei tokittan ipiñiko dittue botuak jasotzeko mahaixak: Arragueta, 20xan; Zuloagatarren, 3an; Romualdo Galdos, 6xan; Tiburtzio Anitua, 5ian; eta Untzaga Plazan, 1. eta 2. zenbakixetan (mahai bana egongo da bakotxian). Goizeko 09:00etan zabaldu eta 20:00etan itxiko dittue bozkalekuak eta emaitzak jasotako boto guztiak zenbatu bezin laster jakiñaraziko dittue.

Bozkatu ahal izateko 16 urtetik gorakua izan bihar da eta, horrekin batera, Eibarren erroldatuta egon. Aurkeztu leikiazen agirixak, barriz, honek dira: NAN, pasaportia, gidabaimena edo EHNA + errolda agirixa. Espaiñiak herritar modura hartzen ez dituenen kasuan, bestalde, honetako bat aurkeztu biharko dabe: bizileku txartela, pasaportia, jatorrizko estadiak jaulkitako nortasun agirixa edo gidatzeko baimena. Behin puntu honetara aillegauta, erronka nagusixa domekan ahalik eta jende gehixen botua emotera juatia litzake. Horregaittik, Gure Esku Dago taldietako ordezkariak jendia parte hartzera animau nahi dabe: "Etxian inor ez geratzeko deiza egin nahi dogu, erabagitzeko eskubidia herrita-



Aurreko astian Armerixa Eskolan egindako ekitaldixak interes haundixa piztu eban eta jende morduak erakartzia lortu eban antolatzailliak

**EUSKAL ERREPUBLICA BATEKO
 HERRITARRA IZAN NAHI DUZU?**



rona dalako". Domeka baiño lehen botua emon nahi dabenak gaur izango dabe azken aukeria, 19:00etatik 21:30xetara Arrate Kultur Elkartera (1. pisura) juanda.

Domekan 250.000 herritarrek izango dabe botua emoteko aukeria, Eibarren ez eze, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako 52 herrittan galdeketa egingo dittue eta. Aurretik be, beste toki batzuetan egin dira holako galdeketa: oin arte 91 herrittan

eruan dabe praktikara erabagitzeko eskubidia eta 300.000 lagun deittu dittue botua emotera. Maiatzaren 7xan oin arteko galdeketa olaturik haundixenak hartuko ditu Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako 52 herri eta, hori dala eta, millaka boluntarixo arituko dira biharrian herri galdeketa antolaten, bermatzen, hauspotzen... Bertoko zein naziñoarteko begiraliak be etorriko dira, tartian Jordi Sanchez Kataluña ANCKo presidentia. Ekitaldi nagusixa Durangon egingo dabe, eguardixan.

Bestalde, aurreko asteko eguenian Armerixa Eskolan egindako zozketan, sarixa 1074 zenbakixari egokitu jakon (Casinuan lagun birendako menu berezixa). Antolatzailiak azaldu dabenez, sariduna agertu da.

egitaraua

- 08:45 - 09:00:** Akreditazioa eta dokumentazioa.
- 09:00 - 09:15:** Ongietorria.
- 09:20 - 10:05:** "Hiztun berriek erabiltzen dute euskara?: Hizkuntza-ohitura eta beste gako batzuen eragina".
Estibaliz Amorrortu. Deustuko Unibertsitatea.
- 10:10 - 10:35:** "Guraso ia euskaldunak eta euskara".
Arrate Gisasola. Ebete-ko kidea.
- 10:40 - 11:05:** "Herrigintzaz eta irigintzaz". **Jose Mari Agirretxe.** Porrotx.
- 11:10 - 11:35:** "Agurainen, egunerokoan, 75 ordu euskaraz".
Asier Lafuente. Ekimenaren antolakuntzako kidea.
- 11:40 - 12:05:** "Argia ikastola: Erriberan etorkizuna ereiten".
Argiñe Korta eta Maru Eriz. Argia Ikastola.
- 12:05 - 12:20:** ATSEDENALDIA
- 12:25 - 12:50:** "Euskara eta plazerra lotuz etori berriei 'harrera ona' egin".
Maiñe Asensio. Urtxintxa Eskola.
- 12:55 - 13:35:** "Hizkuntzen trataera migratzaileen harreran, administrazioz kanpoko eragileen eskutik"
Mario Zapata. Soziologo.
- 13:40 - 14:25:** **MAHAINGURUA:** Estibaliz Amorrortu, Arrate Gisasola, Maiñe Asensio eta Mario Zapata.
 Dinamizatzaile: **JAIME ALTUNA.**
- 14:30:** AGURRA
- 14:35:** BAZKARIA

Maiatzak 23, asteartea

EUSKARAREN
 TRANSMISIOA
 mintegia

IZEN EMATEA zabalik

www.etakitto.eus

normalizazioa@etakitto.eus 943 20 09 18



Bakailaoaren Kofradia

Helburuak eta eskaintako zerbitzuak

Angel Elizondok bultzatuta, Eibarren lehiaketa gastronomikoak antolatzen zituen talde batek Bakailaoaren Kofradia sortu zuen 1993an, euskal gastronomian hain garrantzitsua den jakia goratzeko asmoz. Hori baino lehen, 1988an, bakailao lehiaketetan gero eta jende gutxiagok parte hartzen zuela ikusita, bakailao maratonia egin zuten gure herrian: 9 elkartetako 90 sukaldarik jardun zuten lanean eta 500 kilo bakailao prestatu zituzten. 2.000 razio inguru saldu ziren eta irabazitako dirua San Andres Erresidentziarentzako izan zen. Guinness Record-ean sartzea lortu zuten. Hurrengo urtean 1.000 kilo bakailao prestatu ziren.

Aurtengo San Andresetan Bakailaoaren Kofradiaren 24. kapitulua egingo dute. Urtero, kanpotik etorritako beste kofradia batzuetakoekin elkartzen dira. Kalejira egin ondoren ohorezko kideak izendatzen dituzte Portalean egiten duten ekitaldi berezian; ohorezko kofradeek zin egiten dute leku guztietan bakailaoa defendatu, berreskuratu eta sustatu egingo dutela. Paulino Larrañaga, Peli Egaña, Imanol Arias, Miguel Gallastegi, Patxi Usobiaga, Jon Barrondo eta Ernesto Ezpeleta "Bihurri" ohorezko kofrade izan dira, besteak beste. Modu horretan herriko elkarte eta pertsonaiak omendu nahi izaten dituzte.

2005. urtetik Eskolarteko Bakailao Lehiaketa antolatzen dute.



telefonoa: 943 70 04 69 // 619 67 42 37
e-maila: bacalao@bacalaoeibar.net



Kofradiako kideak 1993an: Emilio Gutierrez, Jose Ignacio Ibarzabal, Jesus Maria Murua, Angel Elizondo, Juan Jose Etxaburu, Jesus Mari Artola eta Juan Mari Lejardi.

Alkoholiko Anonimoak

Helburuak eta eskaintako zerbitzuak

Elkartera joateko erabakia hartzen dutenen helburu nagusia alkohola albo batera lagatzea, edan barik egoteari eustea da eta, horrekin batera, beste batzuei helburu hori lortzen laguntzea. Horretarako astero biltzen dira, bakoitzak bere bizipen eta bestelakoak gainerako taldekideekin partekatze eta, horrela, bata besteari alkoholik ez edateko behar duen laguntza eta sendotasuna emateko. Hain zuzen ere hori baita Alkoholiko Anonimoak elkarteak mundu mailan darabilen metodologiaren ardatza edo muina.

Ekintza nagusiak

Elkarte horren barruan Eibarren bi talde daude martxan: "Urko 75" eta "Argatxa Taldea". Urko 75 taldearen bilerak eguaztenetan eta barixakuetan izaten dira, 19:30ean eta Argatxa taldearenak, berriz, astelehenetan eta eguenetan, 19:30ean.

Elkarteko kideen jarduera nagusia bilerak izan arren, hortik kanpora bestelako ekitaldiak ere egiten dituzte batzuetan: ikastetxeetan gazteei hitzaldiak ematera joaten dira, alkoholaren arrisku eta bestelako kontuak azaltzera eta ospital zein psikiatria zentruetara bisitak ere egiten dituzte.

helbidea: San Andres elizako lokaletan (Urko 75) Argatxa (Argatxa Taldea)
telefonoa: 629 141 874 / 943 248 474
e-maila: aaatea3@gmail.com



Alkoholiko Anonimoak elkarteko kideak asteen birritan elkartzen dira. Eibarren bi talde daude.



EIBARREN

erabakiko dugu!



**Euskal Errepublika bateko
herritarra izan nahi duzu?**

BOZKALEKUAK

Arragueta, 20
Zuloagatarren, 3
Romualdo Galdos, 6
Tiburzio Anitua, 5
Untzaga plaza, 1
Untzaga plaza, 2

ORDUTEGIA

09:00etatik 20:00etara

parte hartu!!!

Armagintza Museoaren katalogoa,

arma-bildumaren erradiografia



*Hastapeneko
pistola,
hodibihur
bidezko
ignizioarekin
eta giltza
itxuraduna.*

Armagintza Museoak katalogo berria dauka. 1.395 argazki, 270 pieza eta hainbat adituren testuak jasotzen dira bertan. Hiri armagintzari deitura ematen dioten erramintzen analisi sakona gauzatu du **Jose Luis Valenciaga Crucelegik**, historian zehar funts horren inguruan egin den laugarren katalogoa osatuz. XV. mendetik gaur egunera arte fabrikatutako su-arma motz eta luzeak, tiro sistema ezberdinetakoak, merkatu zibil zein militarreara zuzendutakoak... batu ditu autore eibartarrak 679 orrialdetan.

Armagintza Museoaren arma-bildumaren katalogoak atzo ikusi zuen argia erditze luzearen ostean. Jose Luis Valenciagak pieza bakoitzaren deskripzio zehatza egin du, eta Iñaki Alberdi (Armeria Eskolako irakaslea), Igor Goñi (EHUko Ekonomia irakaslea), Jose Maria Pelaez (Vigoko Unibertsitateko irakaslea eta 'Euskal armagintza XIX.mendean' liburuaren egilea), Javier Iza-Goñola (historiadorea) eta Marta Gomezzen (Armagintza Elkartearen gerentea) adituen testuak jasotzen ditu. Argazkiak, bestetik, Valenciaga berak, eta Jose Valderrey eta Josu Torrealdai eibartarrek egin dituzte.

XV. mendeko aurrekargako 'giltz-pistolak', txinpartako aurrekargako aleak, Lefauchaux sistemako armak, XIX eta XX. mendeetako kartutxeria metalikoak, eta lehen eta orain fabrikatzaile eibartarrek egindako eskopeta finak batu ditu, besteak beste, Valenciagak lan honetan.

Laugarren katalogoa

Liburu hau funts horren inguruan egin den laugarren katalogoa da (1914, 1964, 1984). Valenciagak aitortzen du horietan agertzen diren datuek asko balio izan diotela liburu hau gauzatzeko orduan, "baina aurreko edizioak gutxietsi barik, lan hau zabalagoa da ar-

Katalogoaren 500 ale argitaratu dira eta Elhuyarrek egindako euskarazko bertsioa sarean eskegiko dute

ma bakoitzari dagokion datu teknikoetan". Armen funtzionamendu-sistema, kargatze-ko era... jasotzen dira, "eta fitxa bakoitzak bere fabrikatzaile, aldagarri, fabrikazio-markatze eta abarren iruzkin historikoak ditu".

Katalogoaren 500 ale argitaratu dira eta denbora gutxi barru sarean eskegiko den euskarazko bertsioa egin du Elhuyarrek. Alfontso Mugika izan da liburuan batzen diren 270 piezen fitxak euskaratu dituenak.

Erakusketako arma gehienak Eibarren fabrikatutakoak dira. "Eibar eta Soroluzeko Maisu Armaginek XIX. mende hasieran egindako artelanetatik, gaur egun fabrikatzaile eibartarren katalogoetan agertzen diren armetara". Tartean, grabatu eta damasquinatu lanak dituztenak ere badaude, "artistikoak bezala katalogatuak direnak". Erakusketak, hala ere, baditu atzerriko hainbat pieza ere: AEB, Ingalaterra, Alemania, Austria, Frantzia, Italia, Hungaria, Erusia eta beste hainbat herrialdetakoak.

Arma bakoitza erronka bat

Katalogoa gauzatzeko uste baino gehiago kostatu zaiola aitortzen du Valenciagak. "Arma bakoitzaren datu teknikoetatik haratago euren historia kontatuko nuela erabaki nuen, arma bakoitza erronka bat bihurtu zen". Horren adibide da 'Mp-18-l' Alemaniako subfusilarekin gertatu zitzaiona. Mar-



Arauzkoa ez den pistola, erabilera militar edo zibilerako, frantses erako txinparta giltzaren ignizio mekanismoarekin funtzionatzen zuena.

kaketa berezia dauka, 'P.H.8.4', eta "egunak pasa ziren I. Mundu Gerraren ostean Versailleseko Tratatuaren ostean Alemaniari ezarritako neurriengatik horrela zela aurkitzea". Zenbaki bakoitzak esanahi bat zeukan eta Alemanian aurkitu zituen datu horiek: 'P.H', Hannovereko polizia-eskola; '8', zortzigarren zenturia; '4', arma egokitu zitzaion poliziaren zenbakia. "Horrelako zertzeladekin denbora asko pasa nuen, baina merezi izan du".

Armen jatorria, pieza-mota, fabrikatzailea, fabrikazio-tokia, eredu, serie-zenbakia, kalibrea, tiro-sistema, funtzionamendu-sistema, karga modua, seguru-mota, kanoiaren luzera, luzera osoa, deskargatuta duen pisua, kulata-mota eta osagarriak ("adibidez, 'STAR MD' pistola semiautomatiko baten edo 'FN-Browning mod. 1903' baten kulatin-zorroa") zehazten dira arma bakoitzaren inguruan.

Piezen analisi sakona egin du Valenciagak eta, horretarako, "pisatu, neurtu eta, kasu batzuetan, desmuntatu behar izan ditut, ez nuelako euren tiro-sistema ulertzen, ez nekielako nola funtzionatzen zuten edo ez nuelako serie-edo ekoizpen-zenbakia aurkitzen". Adibidez, 1927an Eibarko Proba Bankuak modu ofizialean probatu eta trokelatu baino lehen, XX. mende hasierako Eibarko pistola automatikoak kanoi azpian daude estanpatuta, "irristailu eta arma-zoiaren barruan".

Armen ezaugarri eta markaketei argazkiak ateratzeko orduan, Britainiar Inperioaren jabetzakoa den 'broad arrow' izeneko gezi bat eta II. Mundu Gerran Alemaniak okupatutako Polonian fabrikatutako 'Radom VIS 35' pistola semiautomatikoak aurkitu ditu autoreak. "Piezak aztertzen nindoan heinean, esanguratsua iruditzen zitzaidanari argazkia ateratzen nion", beraz, fitxa bakoitzak testuari laguntzen dioten argazkiak daramatza.

Valenciagari zaila egiten zaio erakusketako pieza bat aukeratzeko. "Asko dira interesgarriak, baina aipagarria iruditzen zait Horace Smith eta Daniel Wessonek 1854an fabrikatutako 'Volcanic Navy Model n°2' errepetizio-pisto-



Ehizarako aiztoa berarekin kolpekatze pistola daramana.



Victor Sarasqueta S.A.-k egindako makila.



Arauzkoa ez den pistola, txinparta giltzarekin.



Jose Luis Valenciaga Arrateko gerra interpretazio zentroan azalpenak eskaintzen.

la Iparramerikarra". Rocket Ball izeneko bala hutsa erabiltzen zuen arma honek, urte batzuk lehenago armagin batek Nueva Yorken "Volition Repeating Rifle" errepetizio-riflerako ("onarpen handia gabekoa") asmatu zuena. "Bere elikatze- eta karga-sistema gaur egun Winchester bat bezalako palanka-rifleetan erabiltzen denaren aitzindaria dela esan daiteke".

Publiko orori zuzendua

Arma eta gai militarretan aditua da Valenciaga. "Gaztetatik izan dut kontu militarrekiko zaletasuna", eta horren adibide da 1964ko Armagintza Museoaren katalogoa txikitari irakurri izana. Armaginen iloba eta birbiloba da autorea, eta bere etxean sarritan kontatzen ziren aitzitxa Mexikora armak saltzera joaten zeneko istorioak. "Mexikon zuen sukurtsalera armak eramateko, 1927an eskopetaz kargaturik hilabeteak eman zituen itsasontzian bidaiatzen".

Gerra Zibilean ere protagonista izan zen familiaren fabrika, "'Mauser 1916' fusilentzako zumitz-malgukiak eta Markinako 'Esperanza y Cia'-ren morteroentzako malguki helikoidalak egiten baitzituzten". Valenciagaren ustez, "pentsatzen dut guzti honek eragina izan duela gai hauen inguruan interesa pizteko orduan".

Beretzat "oso pozgarria" izan da katalogoa gauzatzea. "Horrelako gaiak gustatzen zaizkion nire moduko pertsona batentzat, museo edo liburutetan bakarrik ikus daitezkeen aleetara sarbidea edukitzea pribilegioa da". Katalogoa sortzeko orduan ez du adituentzako bakarrik zuzendutako lana egin nahi izan, "nire asmoa ikuspuntu historikoa ematea izan da, pasadizo-zoko datuak emanez, publiko ororen atentzioa deitzeko".

Armagintza Museoeko erakusketak eta argitaratu berri den katalogoak Eibarko eskaintza kulturalaren zati bat gehiago osatzen dutela dio Valenciagak. "Arma-museo handiagoak daude, baina bere piezen kalitatea eta erakusketak atsegina kontuan izanda, Eibarkoa ez da gutxiago".



osasun DOSIAK



iokin elortza
BOTIKARIA

Oinak

Uda ate joka daukagu, eta urte osoan zehar izkutuan eduki ditugun oinek, aire freskoaz gozatzeko aukera izango dute.

Normalean aurpegia eta eskuak zaintzeko ohitura izaten badugu ere, ez dugu berdina egiten gure oinekin, eta udan oin eder eta osasuntsu batzuk eduki nahi baditugu, orain da garaia hauetan arreta jarri eta zaintzeko. Hasteko, ondo dago gure oinetan exfoliazio bat egitea, horrela, urtean zehar pilatutako lehortasuna eta hildako

zelulak kentzea lortuko dugu. Ondoren, oinak ondo hidratatzeko ordua izango da, eta horretarako, lehortasunaren arabera, produktu egokia aukeratu beharko dugu azalak galdutako dizdira berriz izan dezan.

Ohiko beste arazo bat izerdiarena izaten da, oinetan izaten ditugun bakteriei lotuta; askotan usain txarra ere eragiten du eta horri aurre egiteko aukera asko ditugu; uretan gatz batzuk bota eta bainu batzuk egitetik, oinetan emateko spray eta hautsa ugariraino.



Atzazkalak ere zaindu beharrekoak dira. Arazo serioa bada, espezialistara joan beharko gara. Baina horrela ez bada, atzazkalak ondo moztuta, hidratatuak eta limatuak izateko produktu eskaintza ugari dago.


Azken finean, udan oin polit eta osasuntsu batzuk eduki nahi baditugu, hobe berandu baino lehen zaintzen hastea, lorentzo badator!

Aldibereko orgasmoa

Bikote askoren sexualitatearen okerreko helburuetako bat **aldibereko orgasmoa lortzea da**, hau da, pertsona biak orgasmoa batera ailegatzeta. Hori sexu-sinkronizazio perfektoren seinale dela uste da. Helburu iradokitzaile eta erakargarria, baina sexu osotasunaren neurri justua da? Eta hori lortzen ez duten pertsonak baldin badaude, frustratuta sentitu behar dira?

Egin dezagun eskakizun horren inguruko hausnarketa. Sexua praktikatzekoan gertatzen dena jakiteko oraindik gazteegiak garenean, nola deskubritzen dugu sexua? Zinemak eta telesailak hezi egiten gaituzte; sexuarekin izaten dugun lehen kontaktoa, gero errealitatean erreproduzitzen saiatzen garen fikziozko eszenen bitartez gertatzen da. Eta zer da sexuari buruz saltzen digutena? Gehienetan, elkarrenganako desio handia eta dantza-koreografia bat izan zitekeenaren ejekuzioa, oso sinkronizatua gertatzen da-eta. Eta koitoa, koito asko... kasu askotan kondoirik gaba, gainera. Eta gorengo amaiera bezala, aldi berean ailegatzten den orgasmo handi bat: aldibereko orgasmoa.

Irudi horrekin egiten diegu aurre gure lehen sexu-harremani. Itxaropen horrekin gerturatzen gara sexuaren mundura. Baina errealitatea horrelakoa izan daiteke, edo ez.



arantza
alvarez
SEXOLOGOA

Sexua praktikatzeko gogoia ez da beti berdina izaten bi pertsonen artean, eta lortzen joaten den eszitazio gradua ere garaiz kanpo egotea gerta daiteke; baliteke sexu-topaketa horretan gertatzen ari denak bat bestea baino gehiago eszitatzea. Horretaz gain, gorputzaren berezko erreakzioa dago, sentsazio erotikotik murgiltzeko eta plazerra sentitzeko erraztasuna... Guzti horrek izango du eragina orgasmoa emateko edo ez emateko aukeran. Prozesu guztia bi pertsonentzat batera gertatzea erreza izan daiteke, edo ez: pertsonaren arabera, unearen arabera... izango da.

Sexua joko da, esplorazioa, gozamina eta plazerra... aurreikusitako helmugarik gabe ezta helbururik gabe, presio horiekin zentzu ludikoa galtzen baitu. Ez da komeni irudien bitartez saldu diguten gidorekin bat erreproduzitzen saiatzea. Askoz ere interesanteagoa da berezko sexualitate sortzea, pertsonala eta espontanea, momentu konkretuari egokitutakoa, hau da, nahi dugun hori egitea, eta ez saldu digutena.

Orgasmoa ez da derrigorrezko helburu bat, aldiberekoa izatea nahitaezkoa ez den bezala. Helburu bakarra presiorik gabe disfrutatzea da.

IKUSTEKO: Edozein sexu-eszena, baina ikuspegi kritikoarekin, ikusten duguna kuestionatuz.



Eibarko denden *promozioak*

- Kupoi hauek **moztu** eta dendan aurkeztu
- **Bonoak** ez dira bateragarriak
- **Galdetu** baldintzak denda bakoitzean



CORRAL

%5^{eko} deskontua *Maiatz osoan*
Denda guztian


GIZON MODA

T. Etxebarria, 17 943-201949

GOIKO-LUZ

ARGI ibiliz gero
%15^{eko} deskontua
hilabete guztian

943-200883
Otaola, 13



T. Etxebarria, 18
604 203 524

20€^{eko} deskontua
Indiba tratamendu
erreduktore eta
antizelulitikoetan

BONO BAT LAGUN BAKOITZEKO

FARMALUR *derma*

GU BY

Praka guztietan
%10^{eko} deskontua
Maiatzaren 6tik 20ra

943-201551
Julian Etxeberria, 2

I Z A N E

%10^{eko} SOFAK deskontua
Maiatzean eta ekainean

T. Etxebarria, 17 943-203868

umea

10€^{opari} → *50 eurotik gorako*
erosketetan
hilaren 6tik 16ra arte

*BONOAK EZIN DIRA PILATU

943-203164 **Errebal, 16**

Bambi
Oinetakoak

MAIATZEAN
bailarina
eta mutilen
sandaliatan

%15^{eko} deskontua

Errebal, 5
943-203229

bed's *el decano y tú*

Eskaintzen hilabetea

Koltxoia **nikotin** *+Oparia* *50€^{opari}* *50€^{opari}* *30€^{opari}*

Etortzaitez bisitan
 bed's Eibar-era
 C/ Bista Eder, 6
 943 539 997

deskontu-kupoiak
 -%10 extra
 -%10 EXTRA

KOLTXOIAK | OINARRIAK | BURUKOAK | OHE-JANTZIAK

Sanjuanak arte

BENICOBA

%5^{eko} deskontua *garbigailu, ontzigarbigailu,*
hozkailu eta combietan

etxetresna elektrikoak
cenor

(ESKURA ORDAINDUTA ETA ESKAINTZA EDO PROMOZIOTIK KANPO)


J. Gisasola, 14 943-203902

I·B·O·N·E

R. Galdos, 10 B 943-201601

Aprobetxa ezazu
gure laser promozioa!

%10^{eko} DESKONTUA
Potentzia eta
intentsitate altuko
DIODOarekin.





ZER DA?

Euskera ikasten dihardut baina ez daukat norekin praktikatu, nire seme-alabekin euskeraz hitz egin nahi dut baina ez naiz gai, lotsa ematen dit, gaizki esaten badut... Horrelako egoerei aurre egiten laguntzeko jaio zen 2002an Berbetan programa. Premia horiek dituztenak euskaldunekin elkartzen dira taldeetan, astean behin, helburu zehatz batekin: giro natural eta informalean euskera erabiltzea.

la hamabost urteko ibilbidea egin dugu eta urte guzti hauetan euskara praktikatzeko aukerak zabaltzen joan gara: horretarako bereziki sortutako taldeetan (BERBETAN OROKORRA), guraso talde/ kuadrilletan (GURASOAK BERBETAN), edota herriko denda eta tabernetan, hau da lantokian bertan (DENDARIAK ETA OSTALARIAK BERBETAN).

2016/2017 ikasturtean beste pausotxo bat eman nahi izan dugu kultur aniztasuna eta elkarbizitza sustatzeko, ONGI ETORRI BERBETANera programarekin. Euskera eta euskal kultura banatzen gaituena izan beharrean, elkarbizitzarako zubia izan dadin.

Ekintza osagarriak:

Baina norbere ohiko taldetxoarekin harremana izateaz gain, oso garrantzitsua da euskerazko harreman sarea zabaltzea, beste batzuekin ere euskeraz aritzea.

Horretarako, urtean zehar hainbat irteera, hitzaldi, ikuskizun, tailer, lehiaketa eta abar antolatzen ditugu, talde desberdinetako kideen artean elkar ezagutu eta ordutik aurreragoko harremana euskeraz izan dadin.



ZEINTZUK DIRA PARTE HARTZEKO DAUDEN MODUAK?



Parte hartzeko modu desberdinak daude: banaka, asteroko taldeetan (gehienetan tabernetan elkartzen dira) edo **"talde naturaletan"**, lehendik eginda dauden taldeetan: kuadrilletan, parkean elkartzen diren guraso-taldeetan...

Banaka izena ematen dutenekin taldeak eratzen ditugu; praktikatzeko beharra eta jarioasunez hitz egiten duten lagunak elkartuz astean behin (ordu eta erdi).

Talde natural moduan kuadrillaka izena ematen dutenen kasuan, hartzen duten konpromisoa zehaztea eskaintzen zaie, adibidez:



osteguneko pintxopotean, umeek bokadilloa jaten duten bitartean,...

Antolatzaileen hitzetan *"asko aldatu da parte-hartzaileen tipologia. Hasiera batean jubilatua, etxeoandreak... izaten ziren. Gaur egun parte-hartzaile gehienak 30-45 urte bitarteak dira, baina urtetik urtera gero eta jende gazteagoak ematen du izena. Gazteenak 18 urte ditu. Honek zer pentsatu ere eragiten digu, izan ere gazteagoen artean euskara erabiltzeko gogoia agertzea pozgarria bada ere, oso kezagarria da behar besteko aukera "naturalik" topatzen ez dutela ikustea".*



Berbetan egitasmoak euskeraren erabilera bultzatzea du helburu eta horretarako dendari eta tabernarien parte-hartzea ezinbestekoa da. Naturaltasun osoz tabernan edo dendan bertan euskera erabiltzeko aukera izatea nahi dugu. Hau da, **lantokia ere izan dadila euskerarentzat eremu naturala.**

EUSKARAZ PRIMERANI!

Euskera maila ez da berdina tabernari edo dendari guztien artean, baina hori ez da oztopo lehen berba behintzat euskeraz egin ahal izateko.

Lehen berba euskeraz egiteko konpromisoa gure herriko ia 400 establezimenduk hartu dute. Era guztietako denda eta tabernak dauzkagu, baina baita beste era bateko establezimenduak ere, hortz-klinikak, akademiak, tailer mekanikoak... eta abar.

NOLA EMAN DEZAKET IZENA?

- ...eta kitto! Euskara Elkarteko buelgoan (Urkizu 11, solairuarte), etakitto.eus webgunean, Udaleko Euskara Zerbitzuan, AEK zein Udal Euskaltegian edota Haurreskola, HH eta LHko ikastetxe guztietan.
- Banaka zein taldeka, hau da "kuadrillaka" ere eman daiteke izena.
- DOANekoa da.

EUSKARAZ GOZATZEN DUGU! (zer egin dugu?)



Gustora ibili ziren tabernariak Kaffe- latte lkararoan.



Ze gozuak Gildak!! Euskaraz Primeran! kanpainarekin bat egiten duten tabernariak *Gilda Lehiaketan* parte hartu zuten eta ehundaka herritarrek dastatu eta bozkatu zuten.



Lore- dastaketa saioan, Berbalagunek loreek pentsatu baino erabilera gehiago dituztela ikasi zuten.



Mirandaolan Olentzerori eskura emandako gutunean euskeraz bizitza eskatu zioten Gurasoak Berbetaneko familiek.



Gero eta familia gehiago animatzen dira *Barixakuak Jolasianen* parte hartzera. Animatu! Hurrengoa maiatzaren 19an Urkizuko parkean.



Berbalagunak *Santa Eskean* irten ziren herriko kaleak girotuz.



Beherapenen azokan hainbat herritarrek euskera erabiltzeko konpromiso pertsonala hartu zuten (whatsapp-ean, ogia erostean, kafea eskatzean, euskeraz gehiago irakurtzea...)



Seme-alabekin jolastu eta elkarrekin ikastea zoragarria dela erakutsi zuten Gurasoak Berbetaneko hainbat familiak *Akroyoga* saioan.



BADATOR AMARAUNA, HARRAPATU EGINGO ZAITU... ETA BADA KIZU!

Antolatzaileek adierazi digutenez, "2014an tabernariekin harremanetan ipini ginen, eibartarrentzat hain garrantzitsuak diren guneetan euskeraren erabilerarekin arduratuta. Helburu xumea ipini genuen: lehen berba, agurra, bezeroak zer hartzea nahi duen galdetzea, ... bakoitzaren euskera mailaren arabera euskeraz egitea".

Tabernari bati bururatu zitzaion leloa ere "Euskeraz Primeran!". Hitz jokoa egiteaz gain, foballian lehenengo mailara igotzeko zegoen futbol taldeari ere keiñua eginez.

Harrera ona izan zuen tabernarien artean eta hori ikusita dendarien artean ere zabaldu genuen. Baina berehala

konturatu ginen lehen berba hori euskeraz eginez gero euskerari ateak zabaltzen genizkiola. Keinu txiki batek gauza asko aldatzen zituela eta horregatik herritarren artean zabaltzea pentsatu genuen.

2016ko udako merkealdien azokan pin-ak banatu genituen erosketetan euskara erabiltzeko konpromisoa hartzen zutenen artean. Pin-ak banatzen ari ginela berbalagun batek bere janzkera edo azal kolorearengatik beti gazteleraz egiten ziotela esan zigun eta gustatuko litzaiokeela euskeraz egitea nahiago duela moduren baten adieraztea. Pinak herritarren artean banatzea proposatu zigun.

ABIAPUNTUA: SAREA JOSTEN HASI GARA



Argazkian pin-a jaso duten berbetaneko kideetako batzuk.

"Berbetaneko partaideen artean banatu ditugu lehen pin-ak. Bakoitzari hiru bat. Bat norberarentzat eta beste biak euskara erabiltzeko konpromisoa hartzen duten bi lagun, lankide, etxeko, okin, harakin ... etabarri emateko."

Pin-a jasotzen duen pertsonak sarea josten jarraitzea nahi baldin badu, badu aukera ...eta kitto!-tik pasatu eta beste bi pin eskatzeko.

Era berean, edozein herritarrek du ...eta kitto!-tik pasatzeko aukera eta euskara erabiltzeko konpromisoa agertzen badu bere pina jaso eta beste bi lagunentzako pin-ak eskuratuko ditu.

Denon artean amaraun haundia osatu arte.

Pina jaso duten herritar guztiei deialdia egingo zaie, maiatzaren 31an, berriz ere argazkia atera eta amaraunak ze neurri hartu duen ikus dezagun.

**4 ASTEZ
AMARAUNA
EHUNTZEN!**

Datozen lau astetan pina jaso eta euskara erabiltzeko gogoia erakusten duten herritarren artean amarauna ehuntzen edo josten joango gara. Euskeraz primeran pasatzen dugulako, ez zara zeu ere armiarma izango?

ZER DA?

Ikasturte hasieran Ongi Etorri Berbetanera egitasmoa jarri zuen martxan ...eta kitto!-k Udalaren laguntzarekin batera.

Ongi etorri Berbetanera Eibarren bizi garen herritar desberdinak, heldu berriak, urteak daramatzanak edota bizi guztian hemen bizi direnak elkartu eta elkar ezagutzeko aukera paregabea da. Euskera ardatz gisa hartu eta euskal kultura zein herriko kultura desberdinak ezagutzeko aukera ematen du.

Parte-hartzaileak astean behin elkartzen dira, auzoaren arabera leku desberdinetan eta ordubete jarduten dute elkar ezagutzen edota auzoko leku desberdinak bisitatzeko. Baina, horretaz gain, beste-lako ekintza osagarriak ere izaten dira, horietako batzuk Berbetan Mintzapraktika taldekoekin batera garatzen direnak.

Urtarriletik hona parte-hartzaile kopuruak nabarmen egin du gora eta saio eta ordutegi berriak martxan jarri dira. Saio hauek asteroko maiztasuna dute eta partaideek hizkuntza ezagutu, praktikatu eta elkar ezagutzeko aukera dute.



Gero eta parte-hartzaile gehiago ari dira asteroko saio finkoetan parte hartzen.



Mirandaolara egindako irteeran zoragarri pasatu zuten.



San Blas ikastaroan barre pila bat egiteaz gain errezeta desberdinak Wolof, Arabieraz, Euskaraz eta Bengalieraz landu zituzten.

HEMENDIK ETA IKASTURTEA AMAITU ARTE ZER?

Maiatzean Txalan Txalan egitasmoa jarri da martxan. Helburua Eibarko bertako eta beste jatorri batzuetako bizilagunei aurrez aurre elkar ezagutzeko aukera eskaintzea da. Bikoteek, eurek nahi duten hizkuntza ikasi eta praktikatzeko gain, ohiturak, kultura... elkartrukatzeko aukera izango dute.

Ekainean "Munduko Arrozak" ekimena garatzen duen beste herriren bat bisitatuko dugu.



BIKOTE LINGUISTIKOAK

TXALAN TXALAN

INFORMAZIOA ETA IZEN-EMATEA:

...eta kitto!-n:

- o Helbidea: Urkizu Pasealekua 11, solairuartera
- o Telefonoa: 943200918
- o Emaila: ongietorri@etakitto.eus

Gizartekintza Immigrazio saila:

- o Helbidea: Portalea
- o Telefonoa: 943708400
- o Emaila: immigrazioa@eibar.eus



Zuloagatarren, 1 943 53 67 64

XARE

Emakume moda

T. Etxebarria, 5 943 53 94 93

NIA

Emakume moda

Udaberrirako



BEHAR DUZUN GUZTIA



Ospakizunetarako jantziak,
egunero erabiltzeko erropa,
moda gaztea eta dibertigarria,
erropa erosoak eta informalak,
umeendako erropa,
konplementoak...
Eibartik irten gabe
udaberriko modan
aukera zabala!!!

Kalamuako ordezkariak maila eman zuten Andorrako Nazioartekoan eta Legazpin

Andorrako Nazioarteko Torneoak 26. edizioa bizi izan zuen aurreko asteburuan eta, nola ez, han izan ziren Kalamuako senior, junior, kadete, infantil eta alebin mailetako ordezkariak. Judo torneo hori Andorra la Vellako Joan Alay kiroldegian jokatu zen, zapatu eta domekako jar-

dunaldietan, azken egunean gazteenen parte-hartzearekin. Seniorretan Nekane Muguruzak brontzeko domina eskuratu zuen, kadeteetan Asier Eslavak lortutako metal bera. Infantiletan zilarra Maren Martinentzat izan zen eta brontzekoa bereganatu zuten Gaizka Merinok, Iker Cid-ek eta Asier Nuñezek. Eta alebinetan Julen Guenagak, Zehao Ye-k eta Zhe Yi Lin-ek urrezkoa lortu zuten, Eneko Kortak zilarrezkoa eta brontzeko beste bost domina Eibarrera etorri ziren. Eurekin izan ziren Gariquitoiz del Barrio epaile lanetan eta Manu Agirre delegatu.

Hegoi Esteban Kalamuako epaile eta ordezkaria, bestalde, Legaz-



Legazpin izan zen ordezkaritza.

pin izan zen klubeko gazteenekin eta joko bikaina eman zioten hara joandako eibartarrek. Julen Martinek eta Ane Arizmen-diarrietak urrezkoa irabazi zuten eta beste bost kirolarik zilarrezkoa bereganatu zuten.



Andorrara joandakoak.



Garoa Magunazelaia podiumaren gorenean.

400 atleta baino gehiago izan ziren Unben Eskolarteko atletismo txapelketan

Domekan Unben jokaturako Gipuzkoako Eskolarteko Txapelketaren hirugarren jardunaldian, "lan bikaina egin zuten laguntzen jardun zuten guraso eta atletei esker" Gipuzkoako bazter guztietatik etorritako atletek jardunaldi arrakastatsua biribildu zuten. Goiz guztian izandako euriari eta giro nahasiari aurre eginez, emaitzetan ere lorpen bikainak izan zituzten Eibarko Klub Deportiboko ordezkariak: Imanol Egidazu errege izan

genuen alebin mailan, urrezkoa irabazi baitzuen pisu jaurtiketan, 150 m hesietan, 150 metroko proban eta altura jaurtzean. Eta Miren Urizar maila bereko erre-gina bihurtu zen, Egidazuren pisuarena kenduta beste hiru proba berdinetan nagusitu zelako. Infantiletan, bestalde, Garoia Magunazelaia urrea jaso zuen jabalina jaurtiketan eta Jone Acuña (3.000 metrotan) eta Maddi Tejada (150 metrotan) bigarrenak izan ziren.

aire garbiaren bila

Bizkaiko Biraren 8. etapa egingo dute maiatzaren 13an

Hilabete honetako etapak Muskiz eta Turtzioz lotuko ditu, Alen gainera pasatuta


21 kilometroko ibilbidea du Bizkaiko Biraren hurrengo etapak. Mendien bizkar gainera doa, Bizkaiko eta Kantabria arteko mugetatik, eta nahiko gorabeheratsua da: "Azkeneko 1.400 metroko desnibela gaitutako dugu". Bide erdian Alen mendia (804 m.) izango dute zain, bere ondoan dagoen auzoaren izen berekoa. Inguru oso hori ere burdin meategien aztarnekin dago beteta, erromatarren garaioak badira ere oraindik hor dirautelako. Datorren asteko zapatuan goizeko 08:00etan autobusen geltokitik hasiko da txangoa eta arratsaldeko 19:00etan Eibarren "bueltan egotea" espero dute.

Irteeretan parte hartzeko Klub Deportiboko bulegoetan eman daiteke izena martitzen eta eguenean (19:30-20:30).

Zazpigarren etaparen irudia, Serantesen. Periko Iriondo



Abel Barriolak domekan lagako du pilota profesionala Anoetan jokatu den jaialdian. Ez da bakarrik izango egun horretan, sarrera guztiak aspalditik daudelako salduta: omendu nahi dutenek ere ez dute erraz izan egun horretarako tokia hartzea. Maiatzaren 1ean, bestalde, bere agurraren azkenaurrekoa jokatu zuen Astelenan eta, partidua galtzeak pena eman bazion ere, oso eskertuta irten zen frontoitik zaletuek emandako erantzunarekin: *“Sekula ez dut ahaztuko, ez dago hitzik. Frontoi historikoan horrelako agurra jasotzea modukorik ez dago. Mila esker pilotazale guztiei”*



ABEL BARRIOLA (pilotaria):

“Pilotazaleek asko erakutsi didate eta hori bizitza guztirako eskertuko diet”

– Astelenako partidua hasieran hartutako mina ahaztuta dagoeneko?

Atzamar bateko azken falangea tokitik irten zitzaidan, baina gero ondo erantzun zuen. Prest nago Anoetarako.

– Pixka bat urduri ere egongo zara. Lepo beteta izango da, zuri agur esateko.

Nire azken partidua izanda, oso egun politaren aurrean nago. Urduri ere nahiko, gauzak ongi joatea nahi dudalako eta, batez ere, pilotariak gozatu dezatela desiatzen nagoelako. Kirolean eman beharreko urratsa da lagatzearena eta badut ilusiorik.

– Dena dela, horrelako erabakia hartzea ez da erraza izango, eta zailagoa oraindik asmatzea. Une aproposena aukeratu duzulakoan zaude?

Pilota pasioa izan da niretzat, gehien maitatu izan dudana. Une bakoitzak bere zeresana du eta zeozergatik gertatzen da. Enpresak binakako txapelketa jokatzeko aukera eman zidanean, pilotazaleak gogoan nituela, orduan esan nion nire buruari ‘hau da unea’. Goi mailan laga nahi nuen eta, behin asmo hori beteta, zer hoberik etorkizuneko gazteei tokia lagatzea baino?

– Zer eman diozu pilotari? Zer jaso? Badakigu ia pilotari maitatuena zarela...

Pilotari maitatuenaren kontu hori ez dakit zenbateraino... uste dut besteen parean na-

goela: zaletu bakoitzak bere pilotari kuttuna du-eta. Bestalde, pilotari nire biziko denbora asko eman diot, eta gustora gainera. Nire bizitzeko modua izan da, horrela izan naiz zoriontsu, eta egunetik egunera hobetzen saiatu naiz. Jaso dudana? Nire bizi-eskola izan da, berari zor baitiot naizena. Bizitzako arratsalde politenak hor izan ditut. Azken batean, oso pribilegiatua sentitzen naiz: nik emandakoa hamar aldiz gehiago jaso dut.

– Baduzu bide horretan jarraitzeko asmorik? Hau da, pilotari lotuta?

Bizi guztirako horri lotuta jarraituko dut, baina profesionalki momentuz ez. Nire pasiorik handiena denez, gertutik jarraituko dut pilota mundua. Gainera, modalitate guztietako jarraitzaile naiz, pilota-eskola baten jardun dezaket...

– Hamarkada bi eman dituzu profesionalan jokatzeko. Asko aldatu da pilota?

Hor bi alderdi ezberdindu nitzake: pilotariak berdinak izaten jarraitzen dugu, ilusio berarekin eta %100aren prestakuntzarekin. Ingurua da aldatu dena: materiala azkarragoa da lurrian, kirol-medikuntzan asko aurreratuta da, gu hasi ginenean eskuetako babesetan bi-hiru mota zeuden eta orain 100etik gora ditugu eskura...

– Buruz-burukoetan aurrelarietara gerra gehien eman dien atzelaria izan zara az-

ken aldian. Atzelarietara jai izango dute hementik aurrera?

Pertsonalki, txikitatik gehiago izan naiz eskuz banakako jokalaria binakakoa baino. 2003an eman zen aldaketa handia pilotan, baina entrenamendu egokiekin atzelarietara goiari eutsiko diotela uste dut.

– Zure dohai nagusia pilotan? Hobe-tzeko geratu zaizunik?

Biak lotuta daude nire kasuan: pilotarekiko izan dudana zaletasuna obsesio ere bihurtu zait batzuetan.

– Partidu aurretik lasai beti?

Urduri gehienetan, baina bestela ere horrelakoa naizelako. Ondo egin nahi horrek eragiten zaitu, txapelketarako lehia edo herriko jaietako partidua izan.

– Zelako etorkizuna ikusten diozu pilotari? Emakumeen torneoak hasi dira antolatzen, gaztetxoak zuei eskumuturrekoak lapurtzen partidu amaieretan...

Etorkizun oso ona ikusten dut. Gauzak ondo egiten badira, hurrengo belaunaldiak gu baino prestatuago egongo dira. Emakumeen partehartzea, gainera, gizarterako abaragarri da.

– Zaletuendako zeozer berezirik?

Beti nirekin eramango ditudala, euren-gandik asko ikasi dudalako. Astelenakoei, gainera, errespetu handia izan diet beti.

Katu-Kale saskibaloia taldeak beste balentria bat beharko du maila igotzeko

Partiduan ez ziren gutxiago izan, baina sei golengatik galdu zuten Iñaki Sanchezek prestatzen dituen jokalariek Intxaurrendoko Internacionalen aurkako partiduan. Aurreko zapatuan Ipurua kiroldegian jokatuak lehen neurketan sei puntuko aldeaz (74-80) nagusitu ziren donostiarrak eta orain, bihar 16:00-etan jokatu den itzulerako partiduan, eibartarrek alde hori irauli beharko dute.

Ez dute erraza izango, baina azken aukera dute Katu Kalekoek iaz galdutako maila berreskuratzeko. Will (15 punturakin) eta Anderson eta Arakistain (13rekin bakoitza) izan ziren saskiratzaille onenak partidu osoan Katu Kale atzetik joan zen neurketan; hurrengo partiduan hainbat aldaketa egin beharko dituzte jokoan aurkariaren "erloju suitzarraren perfekzioa duen lanari" aurre egiteko.



Estrategian asmatu beharko dute Katu Kalekoak.

Kirol Hiri berria Eibarren: hori da aukera bakarra

Uneon lehen taldeak, CD Vitoriak, emakumeen lehen taldeak eta harrobiko beste bederatzik osatzen dute Eibar KEko egitura. Lehen taldeak alokatutako kirolgune batean entrenatzen du eta zelai gabeziak harrobi lana era egokian aurrera eramatea zailtzen du. Anexoko 500 metroak ere monjei alokatuta daude. Hau da, Eibar KEak ez dauka inolako instalazio jabetzarik, urte amaieran superabit garrantzitsua ziurtatuta eduki arren.

Hiria Primeran plataformatik kirol hiri berria Eibarren egitea aurrakusten dugu: 250 lagun daude kirol egituraren parte hartzen, jokalaria eta entrenatzaileen artean. Bidaiek arriskua dute eta denbora galtzen da. Ekonomikoki ere diru gastu handia dago.

Eibar KEk bere historiako 75 urteetan herritik jasotako babes eta laguntza guztia bueltatu behar du. Zuzendaritza berriak hartu beharko duen erabakirik garrantzitsuena izan daiteke. Une hau aprobetxatu behar dugu Eibarko hiria lehen mailan pintzeko kirol instalazioei dagokionez, herriari laga diezaioketen ondarerik onena delako aisialdirako, osasunerako eta kirola egiteko espazio berri hori.

Gure programan kirol hiri berria Eibarren egotea aurrakusten dugu: lekua dagoelako, teknikariek hainbat gune aztertu ditugulako eta bideragarriak direlako. Leku horiek, gainera, oso onak dira: Kaskarren, Unbeko beheko partea, Bolingua, monjen zonaldea edo toki horien arteko bestelako konbinazio bat.

Aukera guztiak aztertuta, kirol hiri oso ona egin daiteke. Hori bai, Eibarren izatea da aukera bakarra. **Aupa Eibar! Gora Eibar!**

"EIBAR PRIMERAN!"

GERMAN ALBISTEGIREN
HAUTAGAITZA TALDEA

"Jarraitu dezagun!" Gorostizaren hautagaitzak bere proiektuaren hiru aurkezpen egingo ditu

Aurkezpen horietatik lehenengo biak Coliseoan egingo dira eta hirugarrena, bestalde, Ipuruako geletan. Maiatzaren 11n ekonomia arloko proiektua aurkeztuko du "Jarraitu dezagun!" hautagaitzaren taldeak eta, atalka banakaturako aurkezpenetako bigarrena, giza arloa azalduko duena, hilaren 18an eskainiko dute. Azkenik, maiatzaren

25ean kirol arloaren inguruko proposamena azalduko dute, azken hori Ipuruan. Hiru ekitaldiak eguenetan izango dira eta hirurak arratsaldeko 19:00etan hasiko dira. Aurkezpen horietara Eibar KEko akziodun guztiak joan daitezke eta "gonbidatuta daude bereziki arlo bakoitzean zuzenean esku hartzen duten Eibarko hiritar eta entitateak".

20 mendizale azken zubiko Enaren Ibilbidean

Primerako asteburuaz gozatu zuten azken asteburu luzean Enaren Ibilbidea egitera joan ziren mendizaleak. 20 lagun izan ziren parte hartzen Klub Deportiboko mendi batzordeak antolatutako irteeran eta aukera izan zuten Zuberoako paisaia leunekin gozatzeko eta baita "Xiberoko kantuar" entzuteko. "Udaberriko berdez jantzitako basoak genituen zain, bertako arroilekin batera", diote mendizaleek. Eguraldi aldetik denetik izan zuten: "Lehen eguneko ia izugarrizkoa izan zen, eguzkitsua eta oso atsegina; bigarrenetan, haize zakarra zela-eta, ibilbidea pixka bat aldatu behar izan genuen". Azken egunean, bestalde, lehen egunekora bueltatu ziren.



Mendialdea 795 metroko Maddalen tontorrean.

Areto-foballeko kadete denboraldia agurtu dute

Debabarrenak 5-1 galdu zuen azken asteburuan Anoeta Herri Ikastolako kantxan eta Gipuzkoako txapelketaren final-laurdenetan amaitu du denboraldi honetako ibilbidea. Emaitzak erakusten duen baino orekatuagoa izan zen partidua, baina une zehaztutan asmatu ez izanak gehiegizko zigorra ekarri zien eibartarrei.



Fekrik sartu zuen Debabarrenakoen gola, neurraketa berdintzeko balio izan zuena, baina atsedenaldira 2-1 galtzen erretiratu eta gero, Anoeta-koek ondo aprobetxatu zuten eibartarrek lerroak zabaldu zituztela.

Ipuruako gimnastak urrezko dominarekin itzuli dira Guadalajaratik

Aurreko asteburuan Gaztela-Mantxako hiriburu horretan jokatuak Espainiako Txapelketan eta Kopan, Tania Nagornaik zuzentzen duen talde teknikoaren aginduetara lehiatzen duten gimnastek maila handiko garaipena eskuratu zuten. June Herederok, Maddi Teranek, Lur Aranburuk, Indira del Pinok eta Enara Bilbao osatutako infantil oinarri mailako boskoteak 11,800 puntu lortu zituen bost aroekin egindako ariketan eta onena izan zen sailkatutako 40 talderen artean. 2015eko azaroan, orduan kadete oinarri mailan, beste Espainiako txapelketan euren aurretik sailkatu ziren Tolosako ordezkariak bigarrenak izan ziren oraingoan

eta hirugarren postua Benidormentzat izan zen. 12 urte dituzte txapeldun berriek eta hirugarren urtea da dagoeneko estatu mailan lehiatzen dutela; hori dela-eta, Ipuruko teknikariek pozarren hartu dute asteburuko emaitza. Bestalde, Guadalajaran bertan banaka lehiatu zuten Alaitz Aranbarri (18.a kadeteetan) eta Ainhoa Bizkarra (29. infantiletan izan ziren Ipuruko ordezkari onenak; han izan ziren Ana Portu kadetea (192 parte-hartzaileen artean) eta Sara Aranguren eta Izaro Altuna infantilak (horiek 195 izan ziren guztira).

Maiatza atseden hartu ezineko hilabetea izaten da Ipuruko gimnastentzat eta, horrela, datorren zapatuan esko-



Urrezko boskotea Guadalajaran podiumaren gorenera igota.

la, alebin eta infantil mailetako Gipuzkoako txapelketak jokatuko dira Ordizian eta hurrengo egunean, hilaren 14an, Euskadikoa izango da jokoan

Leioan. Eta hurrengo asteburuan Gipuzkoako amateur txapelak izango dira jokoan Ipurua kiroldegian, kadete, jubenil eta senior mailetan.



Kirol Patronatoko eskaintza berriak

Eibarko Kirol Patronatoak Nordic Walking edo Ibilaldi Nordikoa deiturikoa eskaintzen die bezeroei, hilabete honetan nagusiendako prestatutako "Ostiral kirolak" egitarauaren barruan. Horrez gain, uda gerturatzen dela-eta abian da Foball-7ko Bailerako XX. Txapelketa: ekainean hasiko bada ere, izen-emateak maiatzaren 25erako egin beharko dira Eibarko edo Elgoibarko Kirol Patronatoetan. Bihar, bestalde, igerilekua itxita egongo da 16:00etatik 18:30era Benjamin Liga jokatuko delako.

maiatzaren
14an

IRTEERA

09:00etan
Ego-Gainetik

herri
urrats

12€

AUTOBUS



ZERBITZUA

BUELTA

18:30ean

SEMPEREN



J.A. Mogel Ikastolako Gurasoen Elkarte
...eta kitto! Euskara Elkarte



Funeraria-Ehortzetxe

Mugica

EIBAR



Beilatokia
Funeuskadi Eibar:
Otaola, 27

ELGOIBAR



Beilatokia:
SIGMA Industrialdea
(Olasoko hilerriaren ondoan)

Bulegoa Eibarko
erdialdean



24 orduko zerbitzu iraunkorra

943 20 19 51

www.funeuskadi.com

Euskadiko Lehen Ehortze
Taldea

GRUPO
funeuskadi

Julen Teran (atleta):

«Hurrengo erronka 3.000 oztopoetan Espainiako Txapelketara joatea da»

Eibarko atletismo taldeko kirolariak ondo daki podiumera igotzea zer den. 18 urte ditu eta orain dela zazpi hasi zen Inma Urkiolarekin Unben entrenatzen. Harrezkero ibilbide bikaina egin du. Korrika egitea bizitzeko modua da berarentzat. Krosean eta pistan ibiltzen da, fondoko probetan, eta duatloietan ere parte hartzen dihardu. Kroseko proba asko irabazi ditu; horko denboraldia amaituta, pistako probak hasi da prestatzen. 3.000 oztopoetan Espainiako Txapelketa du buruan.



– **Hasieran denetik egiten zenuen, baina orain apurka-apurka espezializatuz joan zara...**

Bai, orain krosean eta fondoko probetan nabil, aire libreko pistetan, 3.000 oztopoetan gehienbat, baina baita 1.500, 800 eta 400 metrotako lasterketan. Hasieran Gipuzkoa mailan kompetitzen nuen, eta kadeteetara pasatu nitzenean Euskal Herri mailan lehiatzen hasi nintzen. Iaz 1.500 metroan Euskadiko txapelduna izan nintzen, eta Gipuzkoa mailan 2.000 metro oztopoetan.

– **Krosa edo pista nahiago?**

Krosa gustatzen zait gehien. Txikitan hasi nintzen, giroa desberdina da, jende mordoak elkartzen gara domeketan. Neguan lokatzarekin korrika egitea oso polita da.

– **Nola joan da denboraldia?**

Oso ondo. Krosak prestatzen hasi ginen. Astebete gripearekin gaixorik egon nintzen, baina azkenean lortu nuen Espainiako kros txapelketarako sailkatzea. Nahiko ondo irten zitzaidan. Orain pista prestatzen hasiko naiz. San Juan osterara arte dena pista izango da. Normalean Donostia, Durango, Tolosa eta hemengo pistetan kompetitzen dut. Kadeteetan Antekeran eta Huelvan

izan nintzen, jubeniletan Ciudad Realen eta Mataron. Aurten, 3.000 metro oztopoetan gutxieneko marka lortzen badut Granollersera joango naiz, Espainiako Txapelketara. Espero dut marka hori lortzea.

– **Eibarko duatloian ere izan zinen eta emaitza bikaina lortu zenuen.**

Krosak amaitzen direnean eta txapelketarik ez dagoenean (2 hilabeteko tartea izaten da), duatloietan jarduten dut. Eibarkoan parte hartu nuen eta Eibarko lehenengoa eta lehenengo juniorra izan nintzen (Pello eta Txomin Osoro falta ziren!).

– **Ikasturtea amaitzean, selektibitate gainean... Posible da ikasketak eta goi mailako kirola aldi berean egitea?**

Ondo moldatzen naiz. Aurten, selektibitatea dela eta, juxtu ibiliko naiz entrenatzeko, baina ondo antolatzen bazara ez dago arazorik. Kirolarekin zerikusia daukan zeozer ikasteko asmoa daukat, niretzako IVEF izango litzateke ideala. Aste barruan 4 egunetan saiatzen naiz entrenatzen eta baita zapatu edo domekan ere. Pello eta Txomin Osororekin fondoko entrenamenduak egiten ditut, eta kalean ere ibiltzen gara antxixiketari.

B. Sarasketa, 1 ac **943 12 82 31**
Kafea, opilak, ogia, pintxoak, ardoak...
 Gozatu **EIBARKO PREZIORIK ONENEKIN!**
KAFETEGIA OKINDEGIA
SUTLONDO
LABADEROKUA Egunero 06.00etatik aurrera

Radio Eibar
CADENA SER
104,0 FM

Iradi
LORADENDA
 – Lora eta landare natural eta lehorrak
 – Ezkontzetarako lorak
 San Juan, 1 Tel. 943 20 33 29

Gazteek kontzertu gehiago nahi dituzte Sanjuanetan, EGI-REN INKESTAREN ARABERA

Euzko Gaztedi-EGIK, EAJ-PNVren gazte-erakundeak Sanjuanetako kontzertuen inguruko inkesta egin du, gai horren inguruan gazteek zer pentsatzen duten jakiteko asmoz eta, erantzun guztiak jaso eta aztertu ondoren, orain dela egun batzuk eman dituzte ezagutzera emaitzak. Apirilean egin den galdetegiari 1.143 lagunek erantzun diote eta, EGiko ordezkarien berbetan, "bakarrik %15k uste du gaur egun Sanjuanetan dagoen kontzertu eskaintza ofiziala nahikoa dela". Eskaintzaren inguruko iritziak jasotzeaz gain, gazteei zein taldek jotzea gustatuko litzaiekeen proposatzeko aukera ere eman zieten eta, norma-lanarekin, era guztietako proposamenak, 600 inguru helarazi dizkiete: "Horiek guztiak tratatu, sailkatu eta zenbatu ostean,



aipatuenak Gatibu, Vendetta eta Berri Txarrak taldeak izan direla ebatzi dugu, hiru horiek jaso dituzten botoak 22, 19 eta 17 izan dira, hurrenez hurren". Inkestako

emaitzak eskuan, horiek udalari bidali dizkiote, "Kultura Batzordeari gaiari buruzko eztabaida egiteko eskaera Pegoran erregistratuta".

Goizetik ekingo diote Gaztetxe Eguna ospatzeari

Eibarko Gazte Asanbladako kideek biharko egitarau zabala prestatu dute Gaztetxe Eguna ospatzeko. Goizetik ekingo diote jardueri, 11:30ean Eibarko Bizikleta Plazan ("Galerosen") hasiko diren jokoekin. Ondoren, 13:00ak aldera Eonian elektrotxarangak lagunduta Gaztetxe-raino jaitsiko dira, han bazkaltzeko (bazkaria 14:30ean hasiko da eta tiketak Depor eta Beleko tabernan ipini dituzte salgai, 10 eurotan). Arratsaldeko 17:00etan animatzen direnak Gaztetxe-an egingo diren jokoetan parte hartzeko aukera izango dute eta ondoren, 19:00etarako mojito jaia antolatu dute terrazan. Eta, eguna biribiltzeko, 22:30etatik aurrera kontzertua emango dute Galtzagorriak (ska-punk) eta Lokurie taldeek.



Itzioko frantses ikasleak Parisen

Urtero bezala, Itzion frantsesa ikasten dutenek Frantziara bidaia egin dute. 60 ikaslek eta 4 irakaslek osatutako taldeak ederto aprobetxatu zuen Paris bisitatzeko aukera eta, jakina, tokirik esanguratsuenak ikusten ibili ziren. Argazkian ikusten duzuen Sacré Coeur ezaguna da. Handik bueltan kontatutakoaren arabera, "bidaia zoragarria izan da benetan! Nekatuta, baina oso pozik itzuli gara denak".

NEREA GALLASTEGI AIZPURUA

(1976-IV-21/2015-V-5)

II. URTEURRENA

"Gure bihotzetan jarraitzen duzu"

ZURE FAMILIA





Joxe Enear gaitzizenaren atzean 1970an jaiotako eibartarra dago eta "Mi vida en una mirada" izenburukoa bere lehen liburua da, eta irakurri dutenen artean oso harrera ona ari du izaten. Eleberrian kontatzen duen istorioan egilearen bizipenak eta fikzioa, biak nahastatzen dira. Liburua internet bidez erosteko aukera dago, editorialcircularojo.com helbidean, eta Eibarren, Ermuan, Elgoibarren eta Deban ere salgai ipini dute, ohiko liburudendetan, eta baita Elkar dendetan ere.

JOXE ENEAR:

(idazlea):

"Istorio nagusia asmatutakoa da, baina protagonistaren sentimendu asko neureak dira"

– Zure lehen liburua da? Nolatan animatu zara idazten, zerk bultzatu zaitu horretara?

Bai, "Mi vida en una mirada" nire lehen liburua da. Betidanik gustatu izan zait irakurtzea: historia, geografia edota nobelak, denetarik. Orain dela urte batzuk Perura bidaian joan nintzen ni bakarrik, motxilarekin, eta egunerokoa idatzi nuen. Idatzitakoa nire inguruko artean zabaldu nuen eta gustora irakurri zuten. Euretako batzuk, gainera, idazten jarraitzeko animatu ninduten. Ni berez ixila eta barnerakoaia, kostatu egiten zait jendearekin zabalitzea. Agian horregatik sortu zait nobela hau idatzi eta argitaratzeko behar edo gogo moduko bat.


– Zergatik aukeratu duzu horrelako istorioa? Berez, politika edota terrorismoaren gaia ez zaio oso erosoa egiten askori...

Gaia zaila eta delikatua da. Txikitatik bizi izan dugu gatazka hau gure inguruan, gertuagotik edo urrutiagotik, eta ia ohitu egin ginen zentzurik gabeko egoera batean bizi izatera. Oraindik ere, telebistan egunero ikusten ditugu bidegabeko egoerak mundu osoan eta horrelakoek ere terrorismoa sortzen dute. Idazteko orduan nire ikuspuntua, besterik ez dut azaldu eta

espero dut horrekin inori traba egin edo minik ez egitea.

– Nobela bat izanda ere, badu loturarik errealitatearekin? Izan ere, besteak beste, Eibar agertzen da...

Alde batetik, istorio nagusia asmatutakoa da, baina, esaten duzun moduan, Eibar agertzen da, baita Donostia ere. Baita munduko beste leku batzuk ere. Baina, bestalde, nobelan nik bizi izan ditudan egoera eta bizipen asko ere daude jasota.



Eta protagonistaren sentimendu asko ere neureak dira edo, bizitzan zehar, neureak izan dira.

– Askok baliatzen dute autoedizioa liburuak argitaratzeko. Zaila da argialetxe batek argitara ematea?

Nik ere autoedizioa erabili dut, Circularojo-ren bitartez eman dut argitara. Lehen nobela izanik, oso normala izaten da hori. Gaur egun, aurretik ezaguna izan barik oso zaila da argialetxe batek ezer kaleratzea.

– Zergatik aukeratu duzu Joxe Enear gaitzizena?

Orain dela hamar urte seme bat (Eneko) eta anai bat (Josetxo) galdu nituen hilabete gutxiko aldearekin. Liburua beraien omenez dago idatzita eta gaitzizena ere beraien izenekin osatutakoa da.

– Orain arte nolako harrera ari du izaten? Esperientzia honen ostean, idazten jarraitzeko asmorik daukazu?

Esperientzia oso polita da. Egia esateko, nahiko harrিতuta nago izan duen harrerarekin, oso ondo saltzen ari delako, batez ere Eibarren. Segidan igarri dut jendearen afektua eta hori harro sentitzeko, bihotzez eskertzeko modukoa da. Ez dakit etorkizunean zer gertatuko den, beste liburu bat idazteko ideiak baditut, baina ikusiko dugu...

Ate Irekiak Maiatzak 12



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Lanbide Heziketako Saiburuzegina

DEPARTAMENTO DE EDUCACION,
POLITICA LINGÜISTICA Y CULTURA



ERDI MAILA

- Administrazio kudeaketa
- Makineriaren elektromekanika
- Ibilgailuen elektromekanika
- Mendekotasun-egoeran dauden pertsoneri arreta
- Soldadura eta galdaragintza
- Erizaintzaren laguntza
- Karrozeria

Eta eskaintza partzialean, arratsaldez...

- Erizaintzaren laguntza
- Soldadura eta galdaragintza

GOI MAILA

- Administrazio eta finantzak
- Automozioa
- Haur-hezkuntza
- Metal eraikuntzak

Eta eskaintza partzialean, arratsaldez...

- Automozioa
- Gizarteratzea



**JUANMA CANO eta
MAITE LORENZO**
(aktoreak)

– ‘El oximoron de la abuela’ estreina-
tzeakoak zarete. Zertan datza?

Maite: Kausalitatez etorri den zerbait izan da. Beste antzezlan bat prestatzen ari ginen, uda tartean geneukan, eta ‘Poxpolo’-k komentatu zigun antzezlan bat idatzita zeukala. Bertako protagonistak anai-arrebak ziren eta antzetzu genitza keela ikusi genuen. Irakurri genuenean liluratuta geratu ginen. Testu hori antzetzu nahi genuen, bertan agertzen ziren ideiak gureak ere direlako.

Juanma: Anai-arrebek familiaren iragarnari buruz dakitena partekatzen dute antzetzlanean. 30. hamarkadan gertatutako gauza izugarriak kontatzen dira, eta nahiz eta pertsonaia biek gertakizunen eta bizitzaren ikuspuntu ezberdinak izan, istorioak kontatzen doazen heinean norberak bere interpretazioak egiten ditu

“Benetan gertatutakoa izateak balio erantsia ematen dio antzezlanari”

Bikote moduan edo anai-arreba lez, antzerkiak Juanma Cano eta Maite Lorenzoren bizitzak batu ditu azken urteotan. Cano berak idatzitako ‘Novios’ mikroantzerkiarekin ikusi ditugu orain arte (Guridi tabernan, gaur, 19:30ean), baina apustua bikoiztu dute. Jose Luis Gonzalez ‘Poxpolo’-k idatzitako ‘El oximoron de la abuela’ estreinatuko dute hilaren 19an, barixakua, Ermuko Antzokian, eta eurekin egon gara entsegu baten erdian.

eta, azkenean, oso beharrezkoa den mezu positibo batera iristen gara.

M: Errepublikarrak dira biak, baina batek garaipena ikusi du eta besteak porrota.

J: Nire pertsonaia ezkorra da eta bera, ordea, praktikoago eta positiboagoa. Ondorioz, nahiz eta familia, bizipen eta ideiak partekatu, bien arteko gatazka ematen da.

– **Antzezlanak, berez, zein motakoa da?**

J: Ez da komedia, baina badu komedia kutsua. Azkenean, istorioan zehar sentimendu asko ateratzen dira eta baditu barre egiteko momentuak, une tragikoak eta esperantzakoak ere. Pentsarazten duen antzezlanak da.

M: Antzezlanak igortzen duen mezua da garrantzitsua: barkatzea, baina zu zeu izaten jarraitzea, arerioak irabazi gabe. Hori da antzezlanak duen onena.

– **‘Poxpolo’, autoreak, ezaguna duzue.**

J: Bere amonaren historia da. ‘Poxpolo’ hunkituta dago, bere familiaren historia eszenatoki gainean ikusiko duelako. Kontatzen dena benetan gertatutakoa izateak balio erantsia ematen dio antzezlanari.

– **‘Novios’ antzezlanarekin hara eta hona zabiltzate.**

J: Zazpi aldiz antzetzu dugu eta onena da antzetzep bakoitza ezberdina dela.

M: Oso ondo pasatzen dugu ‘Novios’ egiten, alaiak da eta jendeak ere gozatzen duela ikusten dugu.

J: Ezkontzera doan bikotea gara. Bere pertsonaia ez dauka ezkontzeko gogo handirik, baina nirea irrikitan dago.

M: Publikoa harritu egiten da eta berehala sartzen da jokoan. Eurekin elkar eragiten dugu.

Santa Kurutz jaiak asteburua beteko dute

Aurreko asteburuan hasi ziren Santa Kurutz jaiak honetan ere izango dute jarraipena, zapatu eta domekarako prestatu duten egitarauarekin. Bihar goizetik hasiko dira ekitaldiak, Santa Kurutzeko ermitan Gorosta eta Mandiola auzoetan hildakoen alde 11:00etan ospatuko den mezarekin. Ondoren, hamaiketako egingo dute, Unai Andonegi eta Oier Baltzola trikitilariek girotuta. Eguerditik aurrera haurrentzako jolasak eta baserritar eta kaltetarren arteko desafioa egingo dituzte eta, horiek amaituta, Ixua jatetxean bazkalduko dute. Erromeriarekin agurtuko dute eguna. Domekarako, berriz, Santa Kurutzera igoera antolatu dute, 10:00etan Urkizuko iturritik abiatuta (parte hartzen duten guztien artean sariak zozketatuko dituzte). 11:00etan meza nagusia egingo da ermitan eta, ondoren, Mugi Panderoa taldeak girotuko



Aurreko asteburuko triki-poteoarekin hasi zituzten jaiak. **Maialen**

duen piskolabisa. Kezka dantza taldearen eta Usartza txistulari bandaren eskutik urtero egiten den soka-dantza 12:00etan hasiko da eta, jaiak bazkaltzeko orduan agurtu aurretik, haurrentzako jolasak eta txapel-jaurtiketa egingo dira.



Euskal Jaiaren 52. edizioa ate joka

Ohikoa denez maiatzaren azken asteburua hartuko duen Euskal Jaiaren egitaraua hainbat gauza lotzen hasi da dagoeneko. Horrela, asteburu horretan egingo diren kantu-afarirako (hilaren 27an, 21:30ean) eta herri-bazkarirako (hilaren 28an, 14:30ean) sarrerak salgai jarriko dira asteburu honetan Klub Deportiboan eta maiatzaren 25era arte lortu ahal izango dira. Ekitaldi bietan bertoko baserritako produktuak erabiliko dira eta prezioa ere merkea izango da: 12 eta 10 euro.

Andrazkoen gerra eta frankismo sasoiko kontakizunak ikusgai

Maiatzaren 10etik 21era "Emeek emana" erakusketa hartuko du udaletxeko patioak. Intxorta 1937 Kultur Elkartearen eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren ekimenez herririk herri dabilen erakusketa datorren eguaztenean inauguratuko dute, 19:00etan eta bisitan joateko ordu-egia hau izango da: astelehenetik barixakura, 09:00etatik 15:00etara eta 18:30etik 20:30era; eta zapatu eta domeketan, berriz, 12:00etatik 14:00etara. Erakusketa honetan emakumeak dira protagonistak, euren argazki eta testigantzekin, eta parte hartu dutenen artean Nieves Atxa, Julia Lanas eta Kontxa Laspiur eibartarrak daude. Antolatzaileen berbetan, "gerra eta frankismo garaiko kontakizunak emakumeen aurpegiekin, emakumeen ikuspegitik. 1936tik aurrera frankismoaren garaiko testuinguru historikoan, emakumeek izan zuten zeregin aktiboa jasotzen da. Ikuspuntu eta ideologia ezberdinetatik, denak batzen dituena bizirik irauteko nahia izan da eta. Bertan azaltzen dira, besteak beste, gudu eremuaren, erbestearen, torturaren, espetxearen, errepresioaren eta bizirik irauteko estrategien inguruko narrazio eta bizipenak eta, baita ere, emakumezkoaren ikuspegitik betiere, antolatutako egitura sozialerako planteamendu eta aktibismoa".



Asier Serranok irabazi du Espainiako 2016ko euskarazko poesia kritika saria

Espainiako 2016ko euskarazko poesia kritika saria Asier Serranok irabazi du, "Linbotarrak" lanarekin. Idazle eibartarraren seigarren poesia liburua da "Linbotarrak" eta honen aurretik beste sari garrantzitsu bat, Xabier Lete III. Poesia Saria eman zion egileari. Liburua Pamiela etxeak eman zuen argitara. 2016ko Kritikaren euskarazko narrazio saria, berriz, Kirmen Uriberri eman diote, "Elkarrekin esnatzeko ordua" liburuarengatik. Espainiako Literatur Kritikarien Elkarteak urtero banatzen dituen sarien irabazleak apirilaren 22an eman zituzten ezagutzera, Sorian. Gaztelerazko sariak, berriz, Fernando Aranburuk (Donostia, 1959), "Patria" liburuarekin eta Fermin Herrerok (Ausejo de la Sierra, 1963), "Sin ir más Lejos" poesia lanarekin eskuratu dituzte.

Zinemaren Jaia Coliseo antzokian

Coliseoko zine emanaldiekin arduratzen direnek Zinearen Jaiarekin bat egin dute eta, hori dela eta, ohiko proiektzio egunetatik kanpora beste bitan, martitzen eta eguaztenean ere zinea eskainiko dute, 20:30ean. Ekimenaren inguruko informazio guztia www.fiestadelcine.com helbidean dago eskuragarri. Bestalde, zapatuan 17:00etan eta eguaztenean 20:30ean antzokia beste ekitaldi batzuetarako erabiliko dutenez, aipatutako ordu



eta egunetan areto horretan ez da proiektziorik egingo. Eta bihar, 19:45ean, Jonas Kaufmannen "My Italy" kontzertuaren emanaldia eskainiko dute, diferituan, Turingo Carignano antzokitik "Orchestra Sinfonica Nazionale della RAI" delakoak lagunduta.

Sostoa abesbatza Zaragozan izan da

Maiatzaren Lehenaren jaiari esker aurreko asteburua normalean baino luzeagoa izan dela aprobetxatuta, Sostoa abesbatzak Zaragozara bidaiaria egin zuen. Turismo pixka bat egiteaz gain, zapatuan Nuestra Señora de Gracia ospitaleko elizan, mezetan abesten egon ziren. Emanaldian toki ezberdinetako abestiak eskaini zituzten, tartean hainbat euskal kantu.



Su Ta Gar ikusteko sarrerak agortu dira

Gaur iluntzean, 20:30ean Coliseo antzokian Su Ta Gar taldeak emango duen kontzerturako sarrera guztiak salduta daude eta, beraz, honezgero sarrera erosi ez duenak ez du izango sartzeko aukerarik. Gaurko emanaldian "Maitasunari pasioa", eibartarren lanik berriena zuzenean entzuteko aukera izango da.



LOREA ARAKISTAIN

Ez dago emakume teknologikorik

Europako Batzordearen arabera, ingurune digitalean lan egiten duten 7 milioi pertsonen artean %30 baino ez dira emakumezkoak, are gutxiago ardura postuetan: %19. Etxera etorrita, egoerak ez du itxura hoberik. Esate baterako, .EUS domeinua erregistratzen dutenen %25 baino ez dira emakumeak.

Zergatik ez dago emakume teknologikorik? Ez dagoelako neskato teknologikorik. 90eko hamarkadan EHUko informatika ikasketetan neska eta mutil kopurua parekoa bazen, aldea urtez urte areagotu da iaz hondoa joa arte: %8 neskak eta %92 mutilak. Bokazio falta dago. Nekez egongo da bokaziorik jaioberritatik zaintza-gaitasunak garatzen dituzten jostailuak eskaintzen bazaizkie, emakume teknologo errealean erreferenterik ez eta *freak* esterotipoa barneratzen badute.

Heldutan, emakumeek Internet erabili egiten dute, gizonek baino gehiago. Erabiltzen dute gizonek sortzen duten Internet hori berori. Nolako internet, nolako ingurune digitala ari da sortzen herritarren erdia ez bada ari sortze horretan parte hartzen? Izan daiteke ingurune parekide eta egokia emakumeentzat? Arrakala digitala esaten zaio baliabide teknologiko berriak lortzeko talde sozialen artean sortutako abantaila eta desabantaila egoerari. Eta, bigarren arrakala digitala emakumeekin gertatu daitekeenari.



Orain dela aste bi aurkeztu zuten Klub Deportiboan Argazkilaritza Maiatzean-eko aurtengo egitaraua. **Silbia Hernandez**

Argazkiak erakusketa aretoak bete eta kalea ere hartuko dute etzi

Aurreko asteko eguenean aurkeztu zuten prentsaren aurrean Argazkilaritza Maiatzean 2017 Klub Deportiboaren egoitzan eta, urteroko martxan, argazkilaritzari eskainitako hilabete bete prestatu dute. Gaur arratsaldean hiru erakusketa inauguratuko dituzte aldi berean Portalean: "Memòries d'un fotògraf - Agusti Centelles (1909-1985)", Asier Garagarzaren "Uneak" eta CVCE Photo elkartearen eskutik Nazioarteko Mendi Argazkilaritza Txapelketako irudi ikusgarriak biltzen dituen. Hilak 28raino egongo da ikustera joateko aukera, martitzenetik domekara, 18:30etik 20:30era. Eta Portaleko ekitaldia amaitu eta jarraian, Topalekura abiatuko dira, Eider Rodriguezen argazki panoramikoak biltzen dituen zabaltzera. Hau ere 28ra arte egongo da zabalik, astegunetan 19:00etatik 21:00etara eta zapatu eta domeketan, berriz, 12:00etatik 14:00etara. Eta eskaintza biribiltzeko, martitzenaz gozotik bost erakusketa gehiago daude martxan:

Maria Tudelarena El Corte Ingleseko aretoan (asteleheneetik za patura, 09:30etik 21:30era); Deporreko Argazkilaritza Taldeko kideen lanak, berriz, El Ambigü eta Portalea tabernetan ikus daitezke; Nazioarteko Gipuzkoa Sariko lanak, berriz, Untzaga jubilatutako etxean (aste lehenetik domekara, 20:00 etatik 21:30ak arte); eta Argizaiola Sariko lanik onenak Klub Deportiboan egongo dira ikusteko moduan (15:00etatik 22:30era). Bostak hilaren azken egunera arte egongo dira zabalik.

Bihar arratsaldean Untzagan

Horrekin batera, biharko hilabete osoko egunik bereziena izango da, 16:00etatik 21:00etara argazkilaritzak Untzaga beteko du eta. Aurreko edizioetako bideari jarraituta, arratsalde osoan galeria erretratuak, erakusketa kolektiboa, doako estudio-erretratuak, kamara minutularia eta argazki artistikoen salmenta eskainiko dituzte.

Familian ikusteko moduko antzerki eskaintza zabala

Eguaztenean udaletxeko pleno aretoan aurkeztu zuten 33. Debabarreneko Eskolarteko Antzerki Erakusketak maila goreneko ikuskizunak ekarriko dizkigu, bihartik hasita. Datozen egunotarako programatu dituzten artean lehena Elirale konpainiak bihar 17:00etan Coliseoan eskainiko duen "Xihiko" dantza ikuskizuna dago; astelehenean, berriz, Markeliñek "Kixote, Santxoren zorabioa" taularatuko du (15:00etan Hezkuntza Esparruan); eta eguaztenean Glu Glu Produccionen eskutik "Desoxirribonukleikoa" komedia ailegatuko zaigu (19:00etan Coliseoan). Egitarauak beste lan batzuk ere jasotzen ditu, hilaren amaiera arteko iraupena izango du eta.



Egitarauak beste lan batzuk ere jasotzen ditu, hilaren amaiera arteko iraupena izango du eta.



Antzerkia euskeraz ERMUAN

Gaur gauean, 22:15ean "Francoren bilobari gutuna" euskerazko antzezlan eskainiko dute Ermua Antzokian Artedrama konpainiakoek. Egileak Unai Iturriaga eta Igor Elortza dira eta Ximun Fuchs-en zuzendaritzapean Ander Lipus, Patricia Urrutia, Manex Fuchs, Zoila Berastegi, Urko R. Pescador, Pako Revueltas eta Erika Olaizola antzezleek jardungo dute.



Erronomia Eguna ITZIARREN

Andutz kultur taldeak Itziariko Erronomia Eguna antolatu du bihar zapatarako. Eguna osorako egitaraua prestatu dute, 11:00etan hasi eta 21:30ak arte.

ELGETAKO Kantu eta Dantza Eguneko bazkarirako txartelak

Kantu eta Dantza Eguna egingo da Elgetan maiatzaren 21ean. Kantu-jira, bazkaria kiroldegian, kantuak eta dantzaldia Jainaga eta Narbaizarekin... Elgeta Kantuan taldeak Arrasate, Aretxabaleta eta Eibarko kantu-taldeei gonbidapena egin die. Bazkarirako txartelak 15 euro balio du eta alde aurretik hartu behar dira (maiatzaren 17ra arte), Bola Toki tabernan edo Elgetako Udalaren kontu zenbaki honetan dirua sartuta: 3035.0009.11.0090900039 (jarri izena eta 'BAZKARIA').

eguraldia (EUSKALMET.NET)

Ostirala	Larunbata	Igandea	Astelehena	Asteartea

hildakoak

- Luis Gomez Vega. 84 urte. 2017-IV-21.
- Manuel Cuadrado Callejo. 90 urte. 2017-IV-28.
- Petra Lopez Garcia. 87 urte. 2017-IV-29.
- Manuel Rivera Colin. 70 urte. 2017-IV-30.
- Roberto Ortega Diez. 54 urte. 2017-V-1.
- Arturo Fernandez Airas. 87 urte. 2017-V-2.
- Jose Arza Ajuria. 87 urte. 2017-V-2.
- Rakel Lopez Airas. 44 urte. 2017-V-2.
- Markel Lopez Airas. 12 urte. 2017-V-2.

jaiotakoak

- Lucia Zubillaga Etchebarria. 2017-IV-24.
- Malak Bentaher. 2017-IV-24.
- Ander Aizpurua Ugarteburu. 2017-IV-27.
- Iزارo Areitio-aurtena Irusta. 2017-IV-27.
- Ibai Areitio-aurtena Irusta. 2017-IV-27.

farmaziak

- Barixakua 5
 EGUNEZ Mandiola (S. Agustin, 3)
- Zapatua 6
 EGUNEZ Castaño (J. Etchebarria, 7)
- Domeka 7
 EGUNEZ Azkue (T. Etchebarria, 4)
- Astelehena 8
 EGUNEZ Elortza (J. Gisasola, 18)
- Martitzena 9
 EGUNEZ Lekunberri (Isasi, 31)
- Eguaztena 10
 EGUNEZ Lafuente (Sostoatarren, 10)
- Eguena 11
 EGUNEZ Lafuente (Sostoatarren, 10)
- Barixakua 12
 EGUNEZ Iraundegi (Calbeton, 19)

GAUEZ BETI - 2017AN-
 Mandiola (S. Agustin, 3)

telefono jakingarriak

- SOS deiak.....112
- Pegora010
- Udaletxea943 70 84 00
- Portalea943 70 84 39
- Udaltzaingoa.....943 20 15 25
- Mankomunitatea.....943 70 07 99
- Debegesa943 82 01 10
- KIUB943 20 38 43
- Epaitegia943 03 34 00
- Iberdrola.....901 20 20 20
- Naturgas.....902 12 34 56
- DYA Larrialdiak.....943 46 46 22
- Gurutze Gorria.....943 22 22 22
- Mendaro osp.....943 03 28 00
- Anbulategia.....943 03 25 00
- Torrekuia943 03 26 50
- Errepideak.....902 11 20 88
- Ertzaintza943 53 17 00
- Eusko Tren.....902 54 32 10
- Pesa.....900 12 14 00
- Taxiak943 20 30 71
-943 20 13 25
- Alkohol.Anon.....629 14 18 74
- Al-Anon/Alateen.....650 26 59 63

SUDOKUA

AURREKOAREN EMAITZA

2	7	3	5	8	4	6	9	1
8	9	1	7	3	6	5	2	4
6	5	4	2	9	1	3	7	8
1	4	5	6	7	9	2	8	3
7	3	2	8	1	5	4	6	9
9	6	8	4	2	3	1	5	7
3	2	9	1	5	7	8	4	6
5	1	6	9	4	8	7	3	2
4	8	7	3	6	2	9	1	5

		4		3	6			
2					8			6
					2	4	8	
7	2						1	
	9						4	
	8						2	3
	7	2	5					
3			1					7
			2	6		9		

Barixakua 5

ZINE-FORUMA

19:00. *"Las mujeres de verdad tienen curvas"*. Dinamizatzailea: Izaskun R. Elkoro. Antolatzailea: Pagatxa Emakume Taldea. Portalean.

DIA DAS LETRAS

19:00. Jai Batzordearen taberna zabaltzea eta Os Galaicos taldekoen kalejira. Umeendako ikuskizuna, tailerrak, jolasak... Smily Animacion-en eskutik.
22:00. Dantzaldia, Suavecito orkestrarekin. Urkizun.

ANTZERKIA

19:30. *"Novios"* (Euri Artean), Juanma Cano eta Maite Lorenzorekin. Guridi tabernan.

KONTZERTUA

20:30. Su Ta Gar: *"Maitasunari pasioa"*. 18 euro. Coliseoan.

Zapatua 6

SANTA KURUTZEKO JAIK

10:30. Kanpaiak.
11:00. Meza, Santa Kurutzeko ermitan, Gorosta eta Mandiola auzoetan hildakoen alde. Ondoren hamaiketakoa.
12:00. Trikitilariak: Unai Andonegi eta Oier Baltzola.
12:30. Haurrentzako jolasak.
13:00. Baserritar eta kaletarren arteko desafioa.
14:30. Bazkaria Ixua jatetxean. Ondoren, erromeria.

GAZTETXE EGUNA

11:30. Jokoak Eibarko Bizikleta Plazan (*"Galerosen"*).
13:00. Eonian elektro-txararang lagunduta Gaztetxeraino jaitsiko dira.
14:30. Bazkaria.
17:00. Jokoak.
19:00. Mojito jai (terrazan).
22:30. Galtzagorriak (ska-punk) eta Lokurie taldeen kontzertua. Gaztetxean.

DIA DAS LETRAS

11:30. Umeendako "chaves" jaurtiketa.
12:00. Herri-kirol erakustaldia.
13:00. Igel-toka txapelketa. Luntxa jaien laguntzaile-entzat (Galiziako Etxean).
16:00. Helduendako "chaves" jaurtiketa.
18:30. Galiziako dantzak eta musika (Os Galaicos) eta sevillanak (Aire Andaluz).
20:30. Dantzaldia, Emperadores orkestrarekin (21:30ak arte).
23:00. Berbena, Emperadores orkestrarekin, goizaldera arte. Urkizun.

DANTZA

17:00. *"Xihiko"* (Elirale Konpainia). Debabarreneko eskolarteko 33. antzerki erakusketa. 5 euro. Coliseoan.

Domeka 7

HERRI-GALDEKETA

09:00/20:00. Gure Esku Dago-ren herri-galdeketa.

SANTA KURUTZEKO JAIK

10:00. Santa Kurutzera igoera, Urkizuko iturritik. Saria zozketatuko da parte hartzaile guztien artean.
10:30. Kanpaiak.
11:00. Meza nagusia Santa Kurutzeko ermitan eta, ondoren, piskolabisa, Mugi Panderoa taldeak girotua.
12:00. Soka dantza, Kezkako dantzarietkin eta Usartzako txistularietkin.
12:30. Haurrendako jolasak.
13:00. Txapel jaurtiketa, nahi duten guztientzat.
14:30. Jaiak agurtzeko kanpaiak.

DIA DAS LETRAS

11:45. Os Galaicos taldeak harrera egingo die Eibarko trikitilarietara, Untzagan. Jarraian kalejiran jaitsiko dira Urkizura.
12:30. Dantza eta musika erakustaldia.
14:00. Lora-eskaintza Castelao-ren oroigarrian.
15:00. Bazkaria.
18:30. Dantzaldia, Los Trovadores orkestrarekin.
22:00. Jaien amaiera. Urkizun.

Astelehena 8

ANTZERKIA

15:00. *"Kixote, Santxoren zorabioa"* (Markeliñe). Debabarreneko eskolarteko 33. antzerki erakusketa. Hezkuntza Esparruan.

IKASTEN

16:00. Sendabelarren Foroa: urkia eta altza. Portalean.

ZINEMAREN JAIK

20:30. Coliseo antzokia Zinemaren Jaira atxikituko da. Zinema-sarrerak 2'90 eurotan.

Martitzena 9

IKASTEN

10:00. *"Zor ekologikoak eta natur baliabideak han eta hemen"* hitzaldia, euskeraz, Leire Urkidiren eskutik (Ingurumen Zientzietan lizentziatua, Ingurumen ikasketetan doktorea eta Giza geografian diplomatua). Armeria Eskolan.

IKASTEN

16:00. Puntu-tailerra.
17:00. Joskintza-tailerra. Portalean.

ZINEMAREN JAIK

20:30. Coliseo antzokia Zinemaren Jaira atxikituko da. Zinema-sarrerak 2'90 eurotan.

Eguaztena 10

IKASTEN

11:00. Kafe-tertulia: Kurtsoan zehar erabilitako gaien balorazioa. Untzagako jubilatuek.

ANTZERKIA

19:00. *"Desoxirribonucleico"* (GluGlu Producciones). 6 euro. Debabarreneko eskolarteko 33. antzerki erakusketa. Coliseoan.

INAUGURAZIOA

19:00. *"Emeek emana"* erakusketa. Udaletxeko patioan.

DANBORRADA ENTSEGUA

19:00. Danborradarako umeen entsegua.
20:00. Helduen entsegua. Udalak B. Sarasketa kaleko 7an duen lokalean.

ZINEMAREN JAIK

20:30. Coliseo antzokia Zinemaren Jaira atxikituko da. Zinema-sarrerak 2'90 eurotan.

Eguena 11

IKASTEN

10:00. *"Migrazioa eta eskuin muturraren gorakada"* hitzaldia, Asier Blas Mendozaren eskutik (Politika eta Administrazio zientzietan doktorea eta EHUko irakaslea). Armeria Eskolan.

KALEETAN KANTUZ

17:45. Kaleetan Kantuz dantzak. Untzagako jubilatuek etxean.
19:30. Kaleetan Kantuz abesbatzaren entsegua. San Andres elizan.

ODOL-EMATEA

18:30. Gipuzkoako Odol-emaileen Elkartearekin. Anbulatorioan.

KALERATZEAK STOP

19:00. Kaleratzeak Stop plataformakoekin bilera irekia. Portalean.

AURKEZPENA

19:00. Amaia Gorostizaren hautagaitzak Eibar KE-ren kudeaketa ekonomikoaren inguruko proposamena azalduko du. Coliseoan.

IKUSENTZUNEZKOA

19:30. "Anceres", Periko Iriondoren eskutik. Klub Deportiboan.

Zapatua, 6

16:00/21:00. Galeria erretratuak, erakusketa kolektiboa, doako estudio-erretratuak, kamara minutularia eta argazki artistikoen salmenta. Untzagan.

Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da ...eta kitto!-n. Hemendik aurrera zorion-agurrak etakitto.eus webgunean ere argitaratzeko aukera daukatzue. Prezioak bertan kontsultatu ditzakezue.



Zorionak, OXEL, gaur lau urte betetzen dozuz-eta. Patxo mordua, txapeldun!, famelixa guztiaren eta, batez be, Mararen partez.



Zorionak, MALEN, etxeko txikixak hillaren 3an urtetxua bete zeban-eta. Famelixa guztiaren eta, batez be, Lorearen partez.



Zorionak, PERU, martitzenian hiru urte bete zenduaz-eta. Patxo potoluak etxekuen eta, batez be, Aiora eta Lurren partez.




Zorionak, potxola!!!, haraiñegun bost urte bete zenduaz-eta. Musu haundi bat famelixa guztiaren partez.




Zorionak, IKER, domekan lau urte beteko dozuz-eta. Famelixa guztiaren eta, batez be, zure anaixa Oihanen partez.



Ongi etorri, ANDER Aizpurua Ugarteburu, apirilaren 27tik gurekin zagoz-eta. Laztantxo bat famelixa guztiaren partez.




Zorionak, JULEN, aste honetan hiru urte bete dozuz-eta!!! Patxo potolua Maddi eta etxekuen partez.



Zorionak, MIREN, haraiñegun 10 urte egin zenduazelako. Musu bat etxekuen partetik.



Zorionak, MANEX! Gaur 9 urte! Musu haundi bat famelixa guztiaren partez. Ospatzeko prest!



Zorionak, UNAI Miguel Caravantes, gaur urtetxua betetzen dozu-eta! Etxekuen partez.



Zorionak, JUNE, aurreko barixakuan zortzi urte bete zenduaz-eta. Patxo haundi bat famelixaren eta, batez be, IKER-en partez.

Erakusketak

ARGAZKILARITZA MAIATZEAN

Maiatzaren 2tik 31ra

- Maria Tudela. *El Corte Inglesen*.
- Gipuzkoa Nazioarteko Saria. *Untzagako jubilatutxuean*.
- Argizaiola Saria. *Klub Deportiboan*.
- Eibarko Klub Deportiboko argazki taldekoen lanak. *Ambigü eta Portalea tabernetan*.

Maiatzaren 5etik 28ra

- Einer Rodriguezen "Panorámicas: Eibar-Euskadi".
- "Memories d'un fotògraf - Agusti Centelles (1909-1985)".
- Asier Garagarzaren "Uneak".
- CVCE PHOTO. Mendi argazkiko nazioarteko lehiaketa. *Lau erakusketak Portalean*.

Maiatzaren 10etik 21era

- "Emeek emana". *Udaletxeko patioan*.

zineaColiseoan

(1 ARETOAN)

6an: 19:45, 22:30

7an: 20:00

8an: 20:30

9an: 20:30

"Lady Macbeth"

Zuzendaria: William Oldroyd



(2 ARETOAN)

6an: 22:30

7an: 17:00, 20:00

8an: 20:30

9an: 20:30

10ean: 20:30 (1 Aretoa)

"El jugador de ajedrez"

Zuzendaria: Luis Oliveros



(ANTZOKIAN)

6an: 17:00⁽¹⁾, 19:45, 22:30

7an: 17:00 (1 Aretoa), 20:00

8an: 20:30

9an: 20:30

10ean: 20:30 (2 Aretoa)

"Plan de fuga"

Zuzendaria: Iñaki Dorronsoro



(ANTZOKIAN)

6an: 17:00 (2 Aretoa) -GAZTELERAZ-

7an: 17:00 -EUSKERAZ-

"Ardiak eta otsoak"

Zuzendaria: Maxim Volkov



i Atal honetako iragarkiak **doan** dira, etxean, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako **PREZIOAK** honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratuko dira.

1. Etxebizitza

1.2. Errentan

- Pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren. Hiru logelegekoa. Tel. 688-802329.
- Pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren. Tel. 662-012834.
- Pisua alokatzen dut Eibarren. Mugikortasun-arazoak dituztenentzat egokituta. Tel. 670-251253.
- Pisua hartu nahi dut alokairuan. Tel. 631-649850.

3. Lokalak

3.2. Errentan

- Lokala alokagai Birjiñape, 1ean. 33 m². Bulegoa egiteko aproposa. Tel. 688-678934.

4. Lana

4.1. Lan bila

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 634-215907.
- Emakumea eskaintzen da gaez nagusiak zaintzeko. Baita asteburuetan ere. Tel. 631-655390.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko, etxeko lanak egiteko eta sukaldelaguntzaile jarduteko. Interna. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 688-728847.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 612-525817.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 632-384325.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 632-291539.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 602-127874.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak zaintzeko. Tel. 632-139806.
- 23 urteko neska euskalduna eskaintzen da umeak zaintzeko. Tel. 618-034460.
- Gizona eskaintzen da umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 678-798189.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 632-166357.
- Neska euskalduna eskaintzen da soziedadek edo pegorak garbitzeko. Tel. 617-571210.
- Neska arduratsua eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko, garbiketarako egiteko eta kamarera jarduteko. Erreferentziak. Tel. 943-901422.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Esperientzia. Tel. 688-712075.

- Emakumea eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 609-806462.
- Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta bulegoak edo pegorak garbitzeko. Tel. 654-304337.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako lanak egiteko. Tel. 673-388416.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita gaez eta asteburuetan ere. Tel. 632-337083.
- Gizona eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta baserrian lan egiteko. Tel. 632-337083.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Orduka. Baita gaez eta asteburuetan ere. Tel. 632-035709.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Orduka. Baita gaez eta asteburuetan ere. Tel. 632-669488.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Orduka. Baita gaez eta asteburuetan ere. Tel. 633-101852.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta umeak edo nagusiak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 662-430951.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Orduka. Baita gaez eta asteburuetan ere. Tel. 612-202116.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko, garbiketarako egiteko eta publizitate lanean jarduteko. Tel. 631-222681.
- Emakumea eskaintzen da asteburuetan nagusiak zaintzeko. Tel. 633-808931.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 631-613245.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 612-493242.
- Neska eskaintzen da edozein lan egiteko: nagusiak zaindu, garbiketarako egin... Tel. 634-209087.
- Gizona eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 650-513412.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 612-204426.
- Neska eskaintzen da goizez umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Hezkuntza titulua, EGA eta esperientzia. Tel. 688-639371.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Orduka. Tel. 662-252150.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Ordu-tegi zabala. Tel. 679-152114.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Ordu-tegi zabala. Tel. 649-626975.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 692-314985.
- Emakumea eskaintzen da edozein lan egiteko: nagusiak zaindu ospitalean... Baita asteburuetan ere. Tel. 606-906729 eta 693-232959.
- Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egiteko. Tel. 631-910326.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 612-482203.

- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 634-446252.
- Neska eskaintzen da orduka garbiketarako egiteko eta gaez nagusiak zaintzeko. Tel. 642-650900.
- Gizona eskaintzen da margolari edo igel-terero moduan eta tabernan lan egiteko. Tel. 642-650816.
- Gizona eskaintzen da nagusiak zaintzeko (baita ospitalean ere). Tel. 632-288967.
- Emakumea eskaintzen da edozein lan egiteko. Baita asteburuetan eta gaez ere. Tel. 688-959575.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 689-273664.
- Gizona eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Gida-baimenarekin. Tel. 650-029176.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 632-978777.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 632-286792.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 636-302237.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 632-061103.

4.2. Langile bila

- Kamarera/o behar da Sorluzen, egun osoko lanaldirako. Tel. 670-541347.
- Eibarko *Kids and us*-ek koordinatzailea behar du 2017-18 ikasterterako. Taldeak bideratu eta zuzentzeko gaitasunarekin eta ingeles maila altuarekin (C1 titulua gutxienez). Umeak gogoko izatea eta inplikazioarekin. Bidali curriculum: direccion.eibar@kidsandus.es

5. Irakaskuntza

5.2. Eskaintzak

- Euskarazko klaseak ematen ditut. Maila guztiak eta ume zaindu. Azterketarako prestaketa: EGA, IVAP, HABERen perfilak... Tel. 620-608065.
- DBH, Batxilergoa eta Unibertsitate mailetako Matematika, Fisika etabarretako klaseak ematen dira. Banakako klase egokituak eta 2/3 ikasleko taldekoak. Goizez ere bai. Tel. 677-592509. Alberto.

6. Denetarik

6.1. Salgai

- 42 metroko mobil-homea salgai Bañarezen (Errioxa). Teilatuko bikoitza, 3 logela, egongela, sukalea eta komuna. Aire ego-kitua. Prezio negoziagarria. Tel. 943-031477. Deitu 20:00etatik 22:00etara.

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak



Nik
nire etorkizuna
eraikitzen dut

 *Metodologia kooperatiboa*

 *Hezkuntza praktikoa*

 *Teknologia berritzaileak*

• Lanbide heziketa

Erdi maila

- Beroa sortzeko instalazioak (iturgintza, eguzki instalazioak, gasa)
- Mantenimendu elektromekanikoa

Goi maila

- Administrazioa eta finantzak
- Automatizazioa eta robotika industriala
- Mekatronika industriala
- Fabrikazio mekanikoko produkzioaren programazioa
- Ekoizpen prozesuak eta kalitatea Elikagaien Industrian
- Efizientzia energetikoa eta eguzki energia termikoa
- Web Aplikazioen Garapena (2. maila)

Eskaintza Partziala

Ote irekiak:
Maiatzak 11

15.00etatik 19.00etara

 **lea artibai**
ikastetxea
Etorkizuna eraikiz

Markina-Xemein

94 616 90 02

info@leartik.com

www.leartik.com

Nahi bezain urrun
iristeko aukera
www.aldatze.org

AURREMATRIKULA



Col. Sta. M^a de la Providencia
ALDATZE Ikastetxea
Aldatze kalea, 5 20600 EIBAR
Tfnoa. 943 70 11 50 www.aldatze.org



INTERNATIONAL DUAL DEGREE PROGRAM

aldatze
haur-eskola

aldatze
batxilergoa



I.E.S Ignacio Zuloaga B.H.I

